

uk

78. zenbakia / 2005 apirilak 10



1. bat gehiago izan

2. nire umea ekarri

3. itxaropena
1. lana

2. nire lagunak

3. planeta
1. enplegu iraunkorra

2. etxebizitza

3. familia
1. erantzunak

2. elkarriketa

3. aurrera
1. ongizatea

2. maialen

3. bakea



Ilusioz begiratzen diogu denok etorkizunari. Horregatik, eskatzen dizut botoa, Apirilaren 17an. Bakea eta zure beharrei erantzungo dien garapena lortuko dituen eta euskal gizarte osoari ongizate hobea ekarriko dion egitasmo bateratuari bultzatzen jarraitzeko. Nahi duzu. Ahal duzu.

Elkarrekin egingo dugu.

eman botoa



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Auto-tetrisa. Asier Menthaka.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Kardenala berandu dabil, Unai Brea.
7. LEHEN ETA ORAIN. Erandio Goikoa, 1890-2005.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
9. ERRETRATUA. Xabier Buenetxea.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Skyline. Asier Menthaka.
26. BERBETAN. Txolo Landaluze. Unai Brea.
28. ARGAZKIA. Etxebizitza Areetan. The Balde.
32. ERREPORTAJEA. Erlijio katolikoa Uribe Kostan. U. B.
34. FOTOGRAFIA. Korrika 2005. A. M.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez-en zutabea. Euskal zinearen astea Leioan.
43. MUSIKA. Kaskarreko taldea. Diskoen erreseinak.
44. KIROLAK. Eduardo Terreros. Irantzu Sagaminaga.
48. LIBURUAK. Apirilak 23, Liburuaren Nazioarteko Eguna.

EUSKARAZ

50. ELKARRIZKETA. Txema Batamita. Unai Brea.
51. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

52. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardacaren gaineko lezioa. Non jan? Esaterako, Algortako Amatxo Maitean.
54. HOROSKOPOA.
55. KOMIKIA. Dogan Gozel.
56. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
57. FLASH BACK. Getxo Futbol Taldeko jubenilak, 1951.
58. AITORMENAK. Dani Aranzubia. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Asier Menthaka (Txikori belarra Sopelan)



Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak / ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza.....**apirilak 11**

Redentor elizako parkinean.....**maiatzak 17**

Algortako anbulatorioa.....**maiatzak 16**

Areetako anbulatorioa.....**maiatzak10**

Erromoko kultur etxea.....**apirilak 21**

Informazioa: 900 720 389

Zatoz odola ematera, ez itxaron!

etorri
eta
ikusi!!

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearen hasia)

Tfn.: 94 491 23 79

Algorta

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Amaia Arriaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti,
Bittor Egurrola, Itxaso Arana, Gaizka Escudero,
Xabier Bilbao, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Unai Amezaga,
Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaide da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkarteen dirulaguntza jasotzen du



Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta



Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Erandioko Berbets Euskaraz elkarteen laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du





aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

gugeu

Eskubideak

UK aldizkariaren zenbaki hau zuen eskuetara heldu den honetan hauteskunde kanpainarekin asper-asper eginda zaudetela jakin badakigu. Gai berezia da politikarena Euskal Herrian. Politikaz apenas egiten dugu berba UK-n; izan ere, nahikoa egiten da komunikabide gehienetan eta, gainera, ia ezinezkoa da herri honetan inor ez iraintzea politikaz hitz egiten denean. Hala ere, oraingoan gure kezkak ezagutzera eman behar ditugula sentitzen dugu.

Alderdien legea dela medio, herri honetako aukera politiko-ideologiko garrantzitsu batek ezin izango du bere burua hauteskunde hauetan aurkeztu, ezta aukera guztien aldeko plataforma ere. Zurea sentitzen ez baduzu ere, Espainiako konstituzioak bere 18. artikulua lehengo paragrafoan zera dio: *“Ohore, norberaren eta senitarteko barrukotasuna eta bakoitzaren irudi eskubidea garantizatzen da”*. Gauzak horrela, Aukera Guztiak plataformaren alde sinatu duten abal-emaileen eskubideak epaileek ahaztu dituztela argi dago. Are gehiago, kode penalaren 197.5 artikulua dio legez kanpoko dela deliturik egin ez duten pertsonen gainean egin daitekeen edozein ikerketa. Eta horixe da hain zuzen ere azken asteotan milaka euskal herritarri gertatu zaiena.


Egoera oso kezagarria da gaur egungoa eta horixe baino ez genuen adierazi nahi. Latza da XXI. mendean pertsona guzti-guztien eskubide guzti-guztiak aldarrikatzen ibili beharra. ⁴

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxe: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero erosi > berria



ALGORTA, 2005

Auto-tetris jokoa / Eskualdean olgetarako joko berri bat asmatu dute: auto-tetrisa. Eta asko dira honezkero jokolari finak. Batzuetan tamainak ez ei dauka garrantzirik trebea izateak baino, baina goiko argazkiko jokalariai besteei, tamainari eta abilidadeari ondo baino hobeto atera die etekina. Horrez gain, zuhur eta lur utzi ditu kotxe handietan harro-harro doazen gidariak, eta bide batez, berretsi du txikiak ere handiari lekua ken diezaiokeela. ^m / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Leihatila

> Maddi Albizu

Globalizazioa eta euskara

Ohartuko zineten honezkero “globalizazio” hitzak gero eta oihartzun gutxiago duela gurean ezta? Halaxe da, bai. Orain dela urte batzuk denon ahotan zebilen berba, itsumustuan, hiztegitik desagertu egin zaigu. Orain, berriz, ebidentziaren aurrean etsitzen duenaren gisan, globalizazioaren aurrean belauniko jarri behar izan dugu. “Galdutako burruka” esango dute batzuek. Ni, ostera, globalizazioaren alde positiboak azpimarratzera natorkizue, globalizazioaren apologia egiteko arriskua nire gain hartuta noski. Izan ere, gure inguruko paisaje-an, hau da, kalean, tabernetan, dendetan, lantokian eta abarrekoetan, euskararen arrastoen bila ibiltzeko joera naturala dugunok harritu egin gaitu, onerako harritu ere, kanpotik etorritako merkatariza arloko enpresa batzuek hizkuntza-aniztasunarekin izan duten jokaera. Gorago globalizazioaren apologia egiteko arriskutik ihes egin nahia adierazi dudan modu berean, oraingoan marka batzuen aldeko aldarrikapenetik ere ihes egin nahiko nuke, baina tira, barkatuko didazue marka batzuk aipatzen baditut: HM, Benetton, Ikea... Hauek denak multinazionalak dira ezta? Kanpotik etorri behar ere, bertokoei euskara erabiltzea komertziala dela erakustera!! 4

photoshop > hurrengo geltokia, Konporte



IRITZIA

Denon ahotan ibili da azken boladan *El código da Vinci* nobela. Liburu horren gainean gogoeta eskatu diogu Unai Brea kazetari berangoztarrari.

Kardenala berandu dabil

Askotan esaten da Eliza katolikoa gizartearen atzetik joaten dela beti, arin aldatzen den mundu baten aurrean geldoegi. Oraingoan, horren beste adibidetxo bat eman digute: honezkero milioika eta milioika lagunek irakurrita daukaten *El código da Vinci* eleberria ez irakurtzeko eskatu du Batikanoak, Bertone izeneko kardenal baten ahotik, liburuak Elizaren irudia zapuztu gura duelakoan.

Berandu habil, txo. Berandu eta desegoki. Elizak liburuak debeka zitzakeen garaiak igaro egin dira. Beste batzuek oraindik debeka ditzakete, baina Elizak ez. Gainera, nahi zenutenaren kontrakoa lortu duzue: inola ere behar ez duen dohaineko publizitatea egitea *El código da Vinci*ri.

Orain arte liburuia irakurtzeko astirik edo gogorik eduki ez dutenetako askori bata zein bestea eskuratzeko behar zuten akuilukada eman die Bertonek. Eta egia esanda, *El código da Vinci* ez

irakurtzeko gomendioa egitea ez da zentzugabekeria hutsa. Liburuia oso entretenigarria da, baina oso txarra literaturaren ikuspegitik. Best selleren inguruko leienda beltza gorpuzten lagundu duen libururik bada, hau da. Nik neuk, aitortzen dut, liburuia askatu ezinik ibili nintzen pare bat egunez, barruko istorioari iltzatuta. Amaitu nuenean, zera pentsatu nuen: nola egin daiteke hain kontakizun erakargarria, hain txarto idatziz? Bada, egin daiteke. Literatura, gainerako kultur adierazpideak bezala, gero eta gehiago da

«Telezaborraz hainbeste berba egiten den honetan, literatur zaborraz ere berba egiten hasi beharko gara»

kontsumo artikulu merkea. Telezaborraz hainbeste berba egiten den honetan, literatur zaborraz ere berba egiten hasi beharko gara; eta *El código da Vinci* liburudendetako *Crónicas Marcianas* da. Alegia, arrakasta daukana, arrakasta kopurutan neurtzeko moduko zera bada.

Horregatik guztiagatik da kritikagarria Dan Brownen nobela, baina ez Bertone kardenalak aukeratutako arrazoiengatik. Nahiko entretenigarriak izateaz gain (meritu hori aitortu beharko zaie), badago *El código da Vinci* eta enparauek milioika irakurle erakartzeko beste arrazoi bat: hankaz gora jartzen dute Elizak mendetan zehar emandako fedearen ikuspegia. Arimaren kontuak beste modu batera bizitzeko bide bila dabil jendea, eta antzinako misterioetan oinarritutako nobela olde berri honek ildo batzuk ematen ditu horretarako, Elizaren beharrik gabe. Horregatik hasarretu zaigu

Bertone. Baina berandu. 4

Unai Brea (kazetaria)



EUSKAL MUSEOA, BILBO



ASIER MENTAKA

Iraganez doa denbora* beti / ERANDIO GOIKOA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

artea > Alberto Zeballos-en akabuko beharrak

Aspaldian ez zuen Alberto Zeballos (Getxo, 1969) artista getxoztarrak bere lanak publikoki erakusken. Orain Algortako Lainoa taberna berrituan ikus daitezke berak sortutako lanak. Gehienak espresionismotik hurbil dauden pinturak dira. Hala ere, Algortako bazterren irudi eder bi ere eskegi ditu Zeballos-ek Lainoan. Martxoaren 18an lagun giroan eta aspalditik ikusten ez diren koadro berde-beltzak dituen kaiku dotorea jantzita aurkeztu zituen artearen behargin honek bere lan hauek. Erakusketaren parte balira bezala berak ere prestatu zituen han dastatu ziren pintxo landuak eta koktela. ^m



Zeballos-en lan bat, Zeballos bera eta erakusketaren aurkezpen eguna

ingurumena > Peña Txuri



Urtero legez, Sopelanako hondartzak eta inguruneak garbitzen ibili ziren martxoaren 19ko goizean Peña Txuri Surf taldekoak. Eguraldi ona lagun izan bazuten ere, eta hareatzak garbitzeko deia sopeloztar denei luzatu bazieten ere, garbitzaileak ez ziren Sopelanako hondartzan uda aldean biltzen diren eguzki-zaleak beste izan. Dena dela, beste behin ere, Peña Txurikoek ingurumenaren eta naturaren maitaleak eta zaintzaileak direla erakutsi dute. Hondartza-erabiltzaileei irakaspen ederra eman zieten berriro ere: hareatzakaz, hondartzakaz eta, oro har, ingurumenagaz gozatzeaz gain errespetatu, garbitu eta zaindu ere egin behar direla. ^m

kale izendegia > Felix de la Virgen



Hirukoiztar xume eta obeditzaile honek Felix Monasterio Ateka zeukan izena, eta 1902an jaio zen Errigoitiko Altonaga baserrian. Hamahiru urte zeuzkala Algortako Hirutasunean sartu zen, eta handik hamar urtera apaiz izendatu zuten Erroman. Erantzukizunezko zenbait kargutan jardun zuen ordenean (irakasle, nobizioen maisu, probintzia-bikarioa...), baina betidanik bere guraria misiolari izatea izan zen; hala ere, osasun makalak behin eta berriro eragotzi zion irrika hori betetzea. Andaluzian eta Gaztela-Mantxan egon ostean, Algortara itzuli zen 1936an; hortxe bizi izan zen tuberkulosiak jota 48 urtegaz zendu zen arte. Bizitza osoan eduki zuen santutasun ospea ez zuen galdu hil ostean; izan ere, 1963an hasi zen bera beati-fikatzeko prozesua. 1969an ireki zuten bere izena daukan bigarren mailako kalea, Hirukoiztarren Elizaren inguruetan, hain zuzen. ^m

Argazkian, Aita Felix Monasterio Ateka



Xabier Buenetxea nonbaiten galtzen bada, Bolueko inguruetara joan gaitzeko haren bila eta ziur aski hantxe topatuko dugu... prismatiko eta guzti

Xabier Buenetxea > Bolue padurako kudeatzailea

Txikitatik datorkio naturarekiko zaletasuna: *“Aitari laguntzen nion ehiza egitera mendira joaten zenean. Nik prismatikoak eroaten nituen, eta txoriei begiratzen nien”*. Felix Rodriguez de la Fuente ere badauka zerikusi apurra bere lanbidean jarduteko erabakiagaz: *“Gure belaunaldian eragin handia izan zuten El Hombre y la Tierra saioko atalek”*. Xabier Buenetxea (Astigarraga, 1968) baso-ingeniari teknikoak Getxoko hegazti, ugaztun, anfibio, narrasti, zuhaitz eta arrainen gaineko lau liburu idatzi zituen 1998tik 2001era bitartean. Badaroaz lau urte Bolueko hezeguneko eta ibarreko kudeaketaz arduratzen: *“Ordura arte ia utzia zegoen, arriskuan, eta aparkaleku bat eraikitzeko zorian egon ziren. Azkenik, oraintxe dago hobekien”*. Izan ere, bere txokorik kutunenari estimu berezia dio. *“Umetan Boluera etortzen nintzen animaliak ikustera, eta aldatzen ikusi dut. Desagertuko zen beldur ere izan naiz. Oso ekosistema sentikorra da: hemen bizi den fauna hemen bakarrik bizi daiteke, ez beste inon”*. Getxo bezalako hiri batentzat (*“oso jendetsua eta espekulazio urbanistikoagaz”*), funtsezkoak dira Bolue bezalako hezeguneak: *“Birrikak dira”*, diosku Xabierrek, *“eta jendea aintzat hartzen hasi da, gure eskualdean gero eta berdegune natural gutxiago daudelako”*. ^m

Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Jon Urresti**

Kultur ekintzen sukalddea

Urte osorako **kultur lapikoa** aurkeztu berri du Getxoko kultur etxeak: **musika, zinema, antzerki, arte...** osaigaiez eginiko menuak guztion gustuak **asetzeko asmoa** dauka

Aurtengo menuak mota askotako gustuak asebetzeko asmoa daukala adierazi du Elena Coria Kultur zinegotziak. Kultur Etxeko sukaldariek zapore eta osagai desberdinakaz bete dute lapikoa helburu hori lortzeko, eta urte amaieran epaituko dute getxoztarrek betekada edo gosea jasan ete duten.

Mahai gainean dago dagoeneko Kultur Etxearen plater zerrenda. Antzerkia, musika, zinea, literatura, artea... dira osagai nagusiak eta ume, gazte zein nagusientzako beren berengi egindako menu bereziak ei dauzkate. Sutean Kultur Etxeko ardura-dunakaz batera herriko liburutegi, euskaltegi eta elkarte asko dabilta egitarauaren lapikoa prestatzen. Kultur jatetxearen aurrekontua 5.488.215 eurokoa da. Hala, prest dago eskaintza, eta zerbitzariak eman du hilez hil egongo diren plater nagusien berri.

Sasoiko gaia literatura izango da apirilean, Liburu azoka egingo da-eta orduantxe. Eta postrerako Poison Trio taldeak emango duen Pio Lindegaarde omenezko kontzertzua gomenda daiteke. Maiatzeko mantel gainean artea izango da nagusi: Getxoarte eta Eskulangintza azokak iragarri dira ordurako. Ekaineko hasierako platerra Haurren Antzerki Jardunaldiak izango dira; bigarrena Nazioarteko Blues Jaialdia; eta postrea Balkoitik Balkoira bertso Jaialdi ezaguna eta XII. Getxoztar Dantza Eguna izango dira. Uztailak Jazz



Getxoko Kultur Etxeko alor ezberdinetako arduradun nagusiak

zaporea edukiko du, Gaurik Laburrena zine eskaintzaren afalosteagaz gozatzeko aukera emango du, Bertso-saio Mundialaren usain herrikoia eskainiko du eta Le-

«Getxoko kultur jatetxearen aurrekontua 5.488.215 eurokoa da»

tren Terrazetan (udako liburutegiak) hartu ahal izango da kafe-literarioa. San Lorentzo azokan, abuztuak 10, erosi ahalko dira udagoienerako eta negurako biltegiak beteta edukitzeko produktuak.

Uda osteko karta

Musikaren su leunak berotuko du iraileko eltzea: Folk eta Habanera Jaialdia egingo direlako orduan. Urriko karta antzerkiz beteko dute XXIII. Antzerki Jardunal-

diek. Azaroak musika klasikoaren gustua edukiko du (Udazkeneko Kontzertuak); ostean Euskararen Jardunaldiak izango dira postre-rik gozoena. Amaierarako, Komiki azoka eta haurrentzako Getxolandia parkea dira urteko kartaren azken platerra. m

Egutegia

- **Getxoarte:** maiatzak 20-22.
- **XVII. Blues Jaialdia:** ekainak 10-12
- **XXIX. Jazzaldia:** uztailak 1-5
- **Gaurik Laburrena:** uztailak 6 eta 7
- **XXI. Folklore Jaialdia:** uztailak 20-22
- **XXI. Folk Jaialdia:** irailak 1-4
- **Erdi Aroko azoka:** irailak 16-18
- **XXIII. Antzerki Jardunaldiak:** urriak 14-23
- **Udazkeneko Kontzertuak:** azaroak 8-12
- **VII. Euskararen Jardunaldiak:** azaroak 20 abenduak 3
- **IV. Komiki azoka:** abenduak 2-4

la 1.000 etorkinen eskaerak

Etorkinen egoera arautzeko 978 errolda-ziurtagiri bideratu ditu Udalak azken bi hilabeteotan



Getxon bizi den Filipinetako lagun taldea Bizkaiko Zubipean

Etorkinen erregularizazio prozesua hasi zenetik (otsailak 7) Getxoko udalak 978 errolda-ziurtagiri egin ditu. Egoera irregularran dauden atzeritarrek euren baldintzak arautzeko prozesuan, Atzeritartasun Legea deritzonaren barruan, derrigorrezkoa da errolda-ziurtagiria lortzea. Alabaina, ziurtagiri hori ez da aurkeztu beharreko agiri bakarra, horrez gain, lan kontratua, jatorrizko herriko aurrekari penalen agiria, etab. behar dira. Horiek guztiak lortu ostean, eta Espainiako arduradunek oniritzia ematen badiote, orduan lortuko du etorkinak bertan bizitzeko baimena. Beraz, pasadan urteko abuztuaren 8a baino lehen Getxon erroldatutako 978 etorkinek lortu dute beharrezkoa den ziurtagirietako bat.

Errolda-ziurtagiria eskuratzeko eskaera egin

dutenen artean gehiengoa Kolonbia, Ekuador eta Boliviakoak direla adierazi dute udal arduradunek. Halaber, kopuru txikiagoan bada ere Errumania, Txina, Filipinak eta Georgiako etorkinek ere eskatu dute agiria. Adinari dagokionez, eskatzaileen batezbestekoa 33 urtekoa da, lan egiteko sasoi bete-betean, eta generoari lotuta gehienak andrazkoak.

Eskaera egiteko epea: maiatzak 7

Errolda-ziurtagiria lortzeko eskakizuna Udaletxean edota Hiritarren Arretarako udalerriko 3 Bulegoetan egin daiteke (Erromon Aurrezki Kutxa kalea 3, Andra Marin Benturillena 17, eta Algortan Juan Bautista Zabalak 6) eta Erregularizazio-eskaera maiatzaren 7a baino lehen aurkeztu beharko dute. m

ANBULATORIO BERRIRAKO ORUBEA EMAN DU UDALAK

Getxoko Udalbatzak Alangoko (Algorta) anbulatorioa eraikitzeko orubea Osakidetzari ematea onartu du. 3.000 bat metro koadroko lursaila utzi dio Udalak Jaurilaritzari 18.000 bat lagunei zerbitzua emango dion anbulatorioa egiteko. Osakidetzak eskubidea edukiko du eremu hori 50 urtez erabiltzeko; hala ere, orandik ezin daiteke jakin osasun zentroa noiz hasiko diren eraikitzen ezta noizko egongo den amaituta.

ESKUBIDE DEMOKRATIKOEN ALDEKO MANIFESTUA

Eskubide Zibil eta Politikoen aldeko Algortako eta Getxoko Ekimenak “*Eskubide demokratikoen aldeko errespetua; ilegalizaorik ez*” manifestua zabaldu du eta horren aldeko atximenduak batzen dabil herritarren zein kultura, kirola edo gizarte arioko lagun ezagunen artean. Bultzatzaileek adierazi dutenez, manifestuak zera aldarikatzen du: “*datozen hauteskunde autonomikoetan parte hartzeko eskubidea herritar guztioi dagokigu, oinarrizko eskubide demokratiko unibertsala delako*”.

BABES OFIZIALEKO 124 ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO AKORDIOA SINATU DUTE

Orain dela gutxi egin du Getxoko Udalak Aiboa metro geltoki alboan eraikitzen dabilzan Babes Ofizialeko 14 etxeen zozketa 1.823 hautagaien artean. Bestalde, 2006ko lehen hiruhilekoan hasiko dira Santa Eugenia (Erromo) egingo diren 70 BOEn eraikitze lanak, eta orduan egingo ei dute horien zozketa ere. Azkenik, martxoaren amaieran sinatu zuten Getxoko Udalak eta Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza eta Gizarte Zerbitzuetako sailak beste 124 BOE egiteko akordioa: Gobela erreka eta Uribe Kostako Korredorearen artean egingo lirateke etxeok, eraikitze lanak 2007an hasiko lirateke eta 2009an ematea espero dute arduradunek.

cianoplan

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Reprografía

Imprimatzeko eta plano kopiak •
Karteak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarkaketak •

Kanposantuan

leku gehiago egongo da datorren urtetik aurrera

Hilerria handitzeko asmoa agertu du Getxoko Udalak, hau da, hilobi gehiago egingo dituztela adierazi dute udal arduradunek. Gutxi gorabehera 600 horma-hilobi eta 1.600 hezurtegi gehiago eskainiko dituzte. Hilobiok kanposantuko goi ezker aldean dagoen inguruan eta sarreraren ezker aldean ipiniko dira. Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak aurreratu duenez, *“administrazioko epeak luzatzen ez badira behintzat, hilobi eta hezurtegi berri horiek, hilerria handitzeko lanak datorren urteko udarako bukatuta egon daitezke”*. Egiteko honetara Udalak oraingoz 18.000 euro bideratu ditu. ^m

Getxoko kanposantua



Aritza Garamendi eta Naiara Lekanda > Lainoako tabernariak
“Lehengo giroa berpiztu nahi dugu, ia uzten diguten”



“Herritarrei herrian gozatzeko aukera eman nahi diegu”, aitortu digute gogotsu Naiarak eta Aritzak

Urte asko daroaz Lainoa tabernak Algortan, ugazaba berriak dauzka orain, euren ahotik jakin dugu ohiko taberna baino zeozer gehiago izango dela Lainoa: erakusketak, ikus-entzuneko ikuskizunak, bertso-saioak, kontzertu-txoak... antolatuko dituzte. Giro euskaldun eta jatorra topatuko du Urgull kaleko tabernara bertaratzen denak.

—Zer eskaini gura du Lainoa tabernak?
—Ez dugu nahi taberna bat bakarrik izatea, beste eginkizun batzuk gauzatzeko aukera eman nahi diogu gazte jendeari, artista hasiberriei... etor daitezela gurera euren ideiekin. Baina gazte zein nagusi denek daukate Lainoako atea zabalik, gazteriak apur bat zabalago. Asteburuak ez izateko bakarrik tragoak hartzeko, herrian giroa sor dadin ekitaldiak antolatu behar dira. Gure aldetik lehengo giroa berpizten ahaleginduko gara, ia uzten diguten.
—Ordutegiak-eta uzten badizute?
—Aste barruan denen onerako, denek gustora lan egiteko formula asmatzea oso zaila da. Orduan guri geratzen zaigun aukera asteburuak dira, eta aukera hori ere kentzen badi-gute... Alkatea konturatu beharko da Algorta *loherri* bihurtzen dabilela, eta antolatzen diren ekitaldiak ez direla jende guztiari begira egindakoak. Ez pentsa tabernarien iritzia

bakarrik denik, herritar askok dauka uste hori, eta gazteria zer esan! Alde batera utzita dauka Udalak, gazte asko nazkauta dago egoera honekin. Udala kontra edukita, tabernariok antolatuko ditugu ekintzak, kontura daitezen hau ez dela negozio bat bakarrik, ikus dezaten ahalegintzen garela Algortako jendeari beste zeozer eskaintzen. Herritarrei herrian gozatzeko aukera eman eta ingurukoak gurera gozatzera etor daitezen nahi dugu, baina gure eskaintzak funtzionatzeko denbora eta aukera ematea behar dugu.

—Konponbiderako proposamenik?
—Tregoa apur bat eskatu nahi diogu Udalari, alde bien beharrak ikus ditzala, ez bate-nak bakarrik, beti alde berbera galtzaile izan ez dadin. Tabernak aste barruan ordutegia, soinuaren bolumena, etab. errespetatzen badi-tugu, asteburuetan tregoa apur bat eman diezagutela. Guk guretik apur bat kenduz

“Alkateari herriari entzutea eskatzen diogu, eta alde denen beharrak ikustea”

apur bat emateko, baina euren aldetik ere apur bat kendu beharko lukete apur hori eman ahal izateko. Herriari entzutea eskatu-ko genioke alkateari eta tabernarion kontra daukan obsesio hori burutik kentzea. ^m

Salamankako agiritegian dauden Getxoko artxiboak

itzultzea eskatuko du Udalak



Agirre lehendakaria Getxoko alkatea zela

Salamankan dagoen Gerra Zibileko Agiritegian Getxoko udal-dokumentuak daudela jakinarazi berri du Udalak eta horiek itzultzea eskatzeko asmoa daukala. Hala ere, ez da dokumentuok eskuratzen ahalegintzen diren lehenengo aldia: Aznar Espainiako gobernuburu zen garaian ere egin zuen ahalegina, eta ezezkoa jaso zuen. Orain, Kataluniako Generalitateak zabal-dutako bidetik berriro ekingo dio, eta bere eskaera laster Kultura Ministerioari bidaltzeko asmoa dauka. Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak azaldu digun legez: “Sa-

lamankako Agiritegian Errepublika garai-ko, Agirre Getxoko alkate zen orduko, uda-lerriko akta-liburuak daudela badakigu eta horiek itzultzeko eskatuko diegu”. Ezaguna da Salamankako Agiritegia arrazoi asko-rengatik baina ezagunena hurrengoa da: gerra garaian eta ostean gudaroste frankis-tek bere egiten zituzten hirietan alderdi politiko, sindikatu eta errepublikanoen egoitzetan, elkarteetan... aurkitzen zituz-ten milaka dokumentu eta agiri -erre ez zituztenak jakina- Salamankara eroan zituzten. ^m

SOS ARRAZAKERIA-REN EKITALDI UGARI GETXON

Getxoko Udaleko Immigrazio arloaren laguntzagaz, SOS Arrazakaria GKEak hainbat ekitaldi antolatu ditu martxoan zehar Getxon: zinema, erakusketak, hitzaldiak... Dena dela, hil honetan ere egongo da hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera: zinema eskaintza berezi bategaz hain zuzen: Radu Mihaileanuren “*El tren de la vida*” (hilak 15), eta Mathieu Kassovitzren “*Odio*” filmak (hilak 22) emango dituzte Algortako kultur etxean (19:00) eta sarrera doan da.

ONDARRETA ABESBATZAK DISKOA GRABATUKO DU

Areetako Ondarreta abesbatzak eliz musikako diskoa grabatzeko asmoa dauka. Getxoko Udalaren diru-laguntza jasoko du horretarako, 2.000 euro, eta denetara CDaren grabazioak 2.300 euroko kostua dauka. 1967an Mesedeetako parrokiako koru legez jaio zen Ondarreta abesbatza eta hurrengo emanaldia Andres Isasi Musika Eskolan emango dute hilaren 29an, 20:00etan.

EMAKUME BIDEAK ZIKLOA ATZERA DATOR GETXORA

Getxoko Antzerki Eskolaren Emakume Bideak programa diru-laguntza faltagatik kolokan egon bazen ere, andrazkoek osatzen duten antzerki talde amateurrek progama aurrera eramatea lortu dute. VI. Emakume Bideak zikloak ez zuen Getxon antzerki lanik eskaini hasiera batean, baina orain Aztiak taldearen ikuskizunagaz gozatzeko aukera egongo da. Eneritz Artetxek egindako *Ubu* lanaren bertsioa antzeztuko dute Aztiak taldekoek Getxo Antzokian apirilaren 22an, 19:00etan, eta sarreraren prezioa 3 eurokoa da.

RENAULT **ocasión**

IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON
“0 Km” dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearekin.
Getxo I Institutuaren ondoan

RENAULT
BILBO BERRI
Bizkerra/k.z/g. - ALGORTA
Tel.: 94 410 60 01
Jon Arrespide, 20 - ERUSTO
Tel.: 94 448 39 03

2010ean tranbia izango du Leioak

Metro geltokitik unibertsitatera 12 minututan eramango ditu bidaiariak garraiobide berriak

Herria zeharkatuko duen tranbia 2010. urterako martxan jartzea aurreikusi du Eusko Jaurlaritzak. Horren arabera, beharrak hasi eta lau urtera –beraz, beharrak datorren urtean hasi beharko lituzkeke– metro geltokia, herri-gunea eta unibertsitatea lotuko dituen garraiobide berri hau erabili ahal izango da.

Tranbiak metro geltokitik irten eta Sabino Arana kalea hartuko du Obeliskoaren alboan Leioako Bulebarra zeharkatzeko. Handik, udaletxetik igoko da Sarriena auzoa igaroz gero unibertsitaterako bidea hartzeko. Ibilbideak 9 geltoki izango ditu: Metro geltokia, Udondoko bulebarra, Sabino Arana kalea, kiroldegia, udaletxea, Sarrienako biri-

«5 eta 15 minutu arteko maiztasunez aterako dira tranbiak eta guztira 9 geltoki ipiniko dituzte»

bilgunea, Askartza ikastetxea eta unibertsitatean geltoki bi. Adituen arabera, tranbiak 12 minutu beharko ditu ibilbide osoa egiteko, hau da, metro geltokitik unibertsitatera dau- den 3,8 kilometroak. Bost tranbia izango dira bidaiarien garraioaz arduratuko direnak eta eskaeraren arabera 5 eta 15 minutuko maiztasunaz aterako dira. Oraindik bidaiaren salneurria eta metroarekin balioztatze- ko aukera zelan izango den ez dute iragarri ardu- radun politikoei. Aurrekontua berriz bai: proiektu hau burutzeko 22.490.000 euro



Goitik behera aldatuko dute Leioako metro geltokia

gastatuko dira.

Proiektuaren bigarren faseak itsasadar gainetik pasatuz Sestaoko Urbinaga gunear- kin lotura aurreikusten du. Oraindik, biga- rren urrats hau zehaztu barik dago, batez ere, itsasadarra zeharkatzeko moduari dagokio- nez. Proiektu honi buruzko informazio gehiago ikus daiteke Kultur Leioan dagoen erakusketan m

Jakingarri

- **Tranbia kopurua:** 5
- **Garraio ahalmena:** 196 pertsona (48 eserita)
- **Abiadura:**
 - Oinezkoen guneeetan: 30 km/h
 - Hirigunean: 50 km/h
 - Hiriartean: 80 km/h
- **Maiztasuna:** 5-15 min.

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Leioako waterpolo taldea

Lau talde eta 80 jokalaria



Argazkian, Javi Vidal taldeko entrenatzailea

Waterpoloa igeri egiten baloia aurkakoaren atean sartzean datzan talde kirola da. Hain zuzen ere, igeri egiteki, edo hobe esanda, igeriketa eskolatik sortu zen waterpolo tal- dea sortzeko ideia. Hala azaldu digu taldea zuzentzeaz arduratzen den Javi Vidalek: “*igeriketa eskolako gazte batzuk, antza igeriketaz nekaturik, waterpolo taldea osatzea proposatu zidaten. Ni hainbat waterpolo taldetan (Lan- datxueta, Askartza, Maristas...) ibilia nintze- nez taldea entrenatzen hasi eta eskolarteko txap- elketan sartu ginen*”. Adintzearekin batera federatu beharra suertatu zitzairen eta or- duan, 1999. urtean, eratu zen ofizialki wa- terpoloko Leioa Igeri Taldea.

Gaur egun hasiera hartako jokalaria ge-

hienak nagusien taldean dabilta Euskadiko bigarren mailan, eta atzetik datorren harro- bia ez da nolanahikoa: nagusien eta gazte- txoen maila ezberdinetan eta eskolan joka- tzen 80 jokalaria daude guztira; gainera, Javi berak aipatu digunez, “*horietako batzuk Euskadiko selekzionako deituak izaten dira*”. Interesaturik daudenak taldera biltzera ani- matzen ditu Leioa Igeri Taldeko arduradu- nak: “*partiduren bat ikustera etorri eta water- poloa zer den ikus dezatela. Gero, frogatu nahi duten guztiei gurekin entrenatzeko aukera eskaintzen diet beti, eta jarraitu nahi duenak jakina, bidea irekita dauka*”. Partidak larun- bat eguerdian izaten dira Leioako kiroldegi- ko igerilekuan. m

INFORMAZIO BULEGO BERRIA LAMIAKO AUZOAN

Lamiako eta Txopoeta auzoetako Berrikuntza Planaren barruan egingo diren aldaketen berri emateko, eta batez ere, etxebizitza jabetza aldaketei eragiten dieten kasuetan informazioa lehen eskutik jasotzeko Informazio Bulegoa ireki du Leioako Udalak. Izan ere, auzo hauetan etxe berriak eraikitzea aurreikusita dago oraingo etxe zaharren ordez. Horregatik, etxe zaharra utzi beharko duten 35 familiei babes ofizialeko etxe berria eskainiko zaie. Familia hauen eta auzotar guztien zalantzak argitzeko jarri du Udalak informazio zerbitzua. Bulegoan bertan etorkizuneko auzoa begitandu daiteke berrikuntzak ekartzen dituzten plano eta irudiak ipini dituzte-eta.

BENITO LERTXUNDIREN KONTZERTUA APIRILAREN 22AN

Datorren apirilaren 22an Benito Letxundik kontzertua emango du Kultur Leioan gaueko 20:00etan. Kantariaren izena izenburu zuen (“Benito Lertxundi”) lehen diskoa 1971. urtean kaleratu zuenez geroztik Orion jaiotako bakarlariak Euskal Herriko frontoi eta txoko guztiak jendez bete ditu, bere musikaz euskal musikaren historia bera eraikitzen. Aurtun zuzeneko lehen diskoa, “Zuzenean”, argitaratuko du martxoan Gernikan eta Tolosan abestutako kantuak bilduz. Disko bikoitz honek 20tik gora abesti biltzen ditu, eta luxuzko liburuxka luze-zabalarekin batera dator. Hilaren 22an kantari bikain honekin goatzeko aukera paregabea daukagu 12 euroren truke.

POP-ROCK LEHIAKETAN MAKETAK AURKEZTEKO EPEA ZABALIK

Leioako Udala Pop-rock V. Lehiaketan parte hartu nahi duten taldeek apirilaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dituzte euren lanak. Parte hartzeko baldintza bakarrak gutxienez 5 abestiz osatutako maketa edo Cda sortzea eta aurreko edizioetan saririk irabazi ez izana dira. Sariak metal eta pop-rock estiloetan, 1.800 eurokoak izango dira eta Euskara Zerbitzuak 600 euro emango ditu euskarazko abesti onenarentzat. Gainera bi estiloetako irabazleetatik Aterpe Gazte Bulegoa sari berezia eskuratzen duenak Leioako jaietan talde handi batekin joko du. Maketarekin edo CDarekin batera taldearen izena eta taldekide baten datuak bidali helbide honetara: Kultu Leioa / Aterpe Gazte Bulegoa. Jose Ramon Aketxe 11- 1.A 48940 Leioa.

Oskar Moreno > Erandioko Txirrindulari Elkarteko zuzendaritza taldekoa

“Jendeak disfrutatzeko ibilibidea prestatu dugu aurten”

Apirilaren 16an izango da Erandio-Erandio 2005 Martxa Zikloturista eta goizeko 9:00etan emango diote hasiera udaletxeko plazan. Uribe Kostatik eta Mungialdetik 112 kilometro egin ostean txirrindulariak 12:30 eta 15:00 bitartean iritsiko dira berriz plazara. Erandioko Txirrindulari Elkarteak antolatu duen XIII. edizio honi buruz eta azkenaldi honetan bultzatu dituen bestelako proiektuei buruz berba egin dugu Oskarrek, elkartearen egoitza ere baden Ciclos Altzaga dendan.

—Erandio-Erandio 2005 martxa zikloturistan berrikuntzarik egongo da?
—Iazko ibilbide bera egingo dugu. Gogorra da, baina norbaitek alderik aldapa-tsuenak albo batera utzi eta bide laburragoa egin gura izanez gero, horretarako aukera ere ematen duena. Jendeak disfrutatzeko moduko ibilbidea dela esango nuke. Iaz 350 parte-hartzaile egon ziren eta aurten, jende gehiago espero dugu. Izan ere, lasterketa *Ciclismo a fondo* aldizkari espezializatuaren zirkuituan sartu da eta estatuko leku askotatik deitu digute. Guk, antolakuntza eta segurtasuna kontuan hartuta, 700 parte-hartzailetan jarri dugu muga. Informazioa edo izena eman nahi duenak 94 467 61 01 telefonora dei dezake edo, bestela, *ciclosaltzaga@terra.es* helbidera.
—Txirrindularien segurtasunari buruzko galdesorta bat ere prestatu duzue. Azaldu egiguzu zertan den hori.
—Estatu mailan guk behintzat ez dugu txirrindularien istripuei buruzko ikerketa sakonik ezagutzen, zelan eta non gertatzen diren, zein istripu-tasa dagoen, zein ondorio dituzten eta abar jakiteko. Horregatik, elkarteko kide den Carlos Ramirez kirol psikologoak galdesorta bat prestatu du eta



Argazkian, Oskar Moreno bere dendan

uda bitartean txirrindularien artean ahalik eta galdesortarik gehien betetzen ahalegin-duko gara. Bilbao-Bilbao martxan 500 bat galdesorta bete genituen, gure fitxategian ditugun beste 400 bat txirrindulariri ere bidali diegu eta baliteke *Ciclismo a Fondo* aldizkariak bere harpidedunei helaraztea. Ikusiko dugu azkenean zenbatena jasotzen dugun eta zer ondorio ateratzen dugun. Horretarako, Unibertsitateko bi irakasleren laguntza izango dugu.
—Segurtasunarekin lotuta, Marra Gorria ekimena ere bultzatu duzue. Laster ikusiko dugu marra gorria gure errepideetan?
—Hori da guk Diputazioari proposatu duguna eta duela hiru urte Euskalduna Jaurerrian egin zen *Bizikletak hirian* nazioarteko biltzarrean aurkeztu genuena. Ideia oso ona izan omen zen eta harrera ezin hobea egin zioten, baina ez dute ezer gauzatu. Proiektu

honek ez du inbertsio handirik eskatzen eta, agian, horixe bera da arazoa, proiektu merkegia dela erakundeek aurrera eramateko. Marra gorriarena oinezkoen pasabideetako marren antzekoa litzateke, ez da bizikletentzat bakarrik gordetako bidea. Zirkulazioko arauak agintzen dutenez, metro eta erdiko tartea utzi behar du ibilgailuak txirrindularia aurreratzeke eta guk eskatzen duguna zera da,

«Iaz 350 parte-hartzaile egon ziren eta aurten, gehiago espero ditugu»

bide bazterreko marra zuritik metro eta erdiko distantziara marra gorria pintatzea, autoek marra horren kanpoaldetik aurrera ditzaten txirrindulariak. Legeak ez duela horrelakorik aurreikusi eta aginduzkoa ez bada ere, gomendagarria litzateke eta uste dugu asko irabaziko genukeela segurtasunean. m

Kanpomartxo 2005

Apirilaren 24an, Erandio Goikoan

Euskara ahotan hartuta erromeria egun alaitsua igarotzeko proposamena egiten die urtero Berbotsek herriko eta inguruetako euskaltzaleei. Erandioko auzoetan egiten da erromeria, urterik urte lekua aldatuta. Ez da lehenengo aldia Kanpomartxo eguna Erandio Goikoan ospatzen dena, baina aurten badago aparteko arrazoi bat horrela izateko: Goi-Alde dantza taldea sortu zene-ko 40. urteurrena. Hori dela eta, taldeak ekitaldi mordoa egin nahi du auzoan, urtean zehar, tartean euskararen jaia.

Betiko moduan, dantzak, bertsolariak, jolasak, kale animazioa, herri bazkaria, kantuak, eta erromeria izango dira Kanpomartxo egunean, Jon Garinek egindako kartelean agertzen denez.

Ohitura da jendeak bazkaria taldeka prestatzea erromeria lekuan bertan edo, bestela, tartera zein bokata etxetik prestatuta eroatea. Aurtengoan, Goi-Aldekoek paela erraldoia ere egingo dute jateko barik doazenentzat. Argi ibil daitezela txartelak lortu nahi dituztenak!

Bazkal aurretik baina, Altzaga ikastola-ko bertsolari gaztetxoak, Etxahun Lekue,



Jon Garinek egindako kartela

Xabier Paia eta Oihane Enbeita arituko dira bertsotan, Algortako Bertso Eskola-koen laguntzaz antolatutako saioan eta aurreko urteetan legez, Robertok eta Kepak trikiti doinuak zabalduko dituzte Erandio Goikoan egun osoan. Hala ere, arratsaldeko seietan hasita, Tapia eta Leturia izango dira erromeria girotzeko ardura hartuko dutenak. m

JOLAS ETA SOLAS FAMILIEN ARTEKO LEHIAKETA

Erandioko Udaleko Euskara Zerbitzuak *Jolas eta Solas* lehiaketa antolatu du, aurten lehenengo aldiz, familia euskaldunek harreman gune bat edukitzeko aukera sortu nahian. Dibertimendua eta ondo pasatzea dira lehentasun lehiaketa honetan.

- Parte hartzeko baldintzak:
1. Erandion erroldatuta egotea.
 2. Familiako kide parte-hartzaileek euskaraz jarduteko gaitasun nahikoa izatea.
 3. Familia-talde bakoitzaren lagun kopurua 2 izango da, gutxienez, eta 4 gehienez.
 4. Taldea osatzeko ezinbesteko da aitak edo amak, bietako batek, eta 6-12 urte bitarteko seme-alabak parte hartzea.
 5. Ekimen hau garatu ahal izateko, gutxienez, 10 talde osatu beharko dira.

Lehenengo saria Disneyland Paris-erako bidaia izango da eta 4 gaueko egonaldia irabaziko dute, 2 heldu eta 2 haurrentzat. Parte hartuko duten talde guztiek lortuko dute opariren bat. Izena emateko epea: 2005eko apirilaren 19ra arte egongo da zabalik eta, horretarako, Udaleko Euskara Zerbitzura edo Astrabuduko Udal Bulegora (Mezo 20) jo behar dute interesatuek.

- Lehiaketako egutegia:
1. eguna: 2005eko maiatzaren 7a, zapatua (17:30 – 19:00)
 2. eguna: 2005eko maiatzaren 22a, domeka (12:00 – 13:30)
 3. eguna: 2005eko ekainaren 5a, domeka (12:00 – 13:30)
 4. eguna: 2005eko ekainaren 18a, zapatua (17:30 – 19:00)

HABIETARAKO KAXAK JARRI DITU ATXAZPEK AKARLANDAN

Aurten gogor joan da negua eta nabarmen igarri diote gure inguruko hegaztiak ere. Hotzak kikilduta, janaria topatu ezinik, lan gaitza izan dute bizimodua aurrera ateratzea. Orain, udaberriarekin batera, habiak egiten hasiak dira edo laster hasiko dira, kumeak aterako badituzte. Baina gure inguruetan gero eta ugriago dira landaketa berriak eta gutxiago txori batzuek beren habiak egiteko behar dituzten zuhaitz zaharrak. Horregatik, Atxazpe mendi taldeak habia-kaxak jarri ditu Akarlandako parkeko zuhaitzetan eta majo eskertuko dituzte kaxa horiek kaskabeltzek, amilotzek zein okilek.

Martxoaren 12an, zapatua, txori-habiak egiteko tailerra antolatu zuen Atxazpe mendi taldeak Josu Murueta plazan eta domeka goizean, eguraldi ona lagun, Akarlandara joan ziren txorien habia-kaxak parkeko zuhaitzetan jartzeko. Batetik eskailera eta bestetik sokak hartuta, aurreko egunean egindako 45 kaxa jarri zituzten, Hegoaldera begira, adarretik 30 bat zentimetrora dingilizka. “Parkeko basozainak azaldu digu zelan jarri eta lehenengo urtean seguruenerik txoriek ez dituztela kaxak erabiliko esan digu, oraindik egur berriaren usaina dutelako”. Horrela eman dizkigu Atxazpeko Juliok ekimenaren azalpenak.



Ezkerrean, antolatu zen tailerra. Eskuinean, habi-kaxak Akarlandan ipintzen.



LIBURUAREN ASTEAN
HAMAICA EKIATALDI
SOPELANAN

Hilaren 18an hasi eta apirilaren 24ra bitartean ekitaldiak gogotik antolatu ditu Hall Kulturalak Liburuaren Astea ospatzeko. Lehenengo egunean Antonio Palomar medikuak pasadan abenduan argitaratutako “*La despena de Hipocrates*” liburua aurkeztuko du; bigarren egunean Unai Elorriaga idazle algortarraren berbaldia egongo da; hilaren 20an Asier Serrano arduratuko da literatur lantegiaz; hurrengo egunean “888 txiste” liburuaren gainean jardungo da Kike Amonarriz; Liburuaren Eguna ospatzeko (apirilak 23) lantegiak, liburuen kioskoak, ipuin-kontalariak, etab. egongo dira; eta azken egunean Iker Diazen ipuinakaz goatzeko aukera egongo da. Ekitaldi ia denak 19:00etan izango dira.

Unai Elorriagak hitzaldia emango du



EGUNEKO ZENTRO
BERRIA ZABALDUKO EI
DUTE MAIATZERAKO

Ekimen pribatu batek nagusientzako Eguneko Zentroa zabalduko ei du maiatza aldean Sopelanan. 65 urtetik gorako pertsonentzako izango da eta 16 lagunentzako lekua edukiko du. Hala, mugitzeko zailtasunak dituzten kideentzako egokituta egongo da, multimedia edo teknologia berrientzako gela bat edukiki du eta ikastaro desberdinak egiteko aukera ere eskainio du.

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxarrieriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

200 aparkaleku gehiago
eta babes ofizialeko 29 etxebizitza berri egingo dira



Autoak aparkatzeko egokitu duten orubea

Aprakaleku faltaren arazoa konpontze-ko helburuagaz, Sopelanako Udalak Tra- fiko Ordenantza berri bat onartu du. Horren barruan 200 apakaleku berri es- kainiko ditu Udalak. Kotxea aparkatze- ko lekuok Metro geltokietatik hurbil, Lizarre auzoan, Urgitxietatik Urkorako bidean eta San Pedro elizaren alboan ipi- niko dira; azken gunen honetan jadanik kotxea uzteko aukera dago. Horren albotik, dagoeneko prest daudenak mo- torrentzako eta ziklomotorrentzako apar- kalekuak dira: Kurene, Sabino Arana eta Gatazarriñe kaleetan daude.

Bestalde, Larrabasterrako Iberre auzo- an kale batzuetan gidatzeko norabidea aldatu egin da eta leku batzuetan kotxea

uztea debekatuta dago orain. Hala, Udal arduradunek adierazi dutenez datorren udatik aurrera txarto aparkatutako autoak kentzeko garabia erabiltzen has daitezke.

29 BOE berri

Bide batez esan, orain dela gutxi sinatu dutela Sopelanako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak 29 Babes Ofizialeko Etxebi- zitza egiteko akordioa. Zaldu auzoan egingo dira etxeok, zozketa aurtien egitea espero dute arduradunek eta 2007rako edo jabeei ematea. Arduradunek azaldu- takoaren arabera, 90 metro koadroko etxebizitza batek, garajeagaz eta tras- telekuagaz 114.192 euro inguruko pre- zioa edukiko luke. m

Peña Txuri Surf Taldea

Hondartzak batu zituenetik 20 urtetik gora joan dira eta taldea orain Bizkaiko garrantzitsuenetarikoa da



Argazkian, Peña Txuriko taldekide batzuk. Harremanetarako: 645 70 47 81

Sopelana aspaldidanik da surfaren kabia. Asko dira udaberritik urrira arte bere hon- dartzetan egiten diren txapelketak. Alabai- na surfak ez du beti eduki herrian gaur egun daukan indarra. Zeozelan esateagatik, surfak hainbeste jarraitzaile ez zeuzkan garaian lagun talde batek kirola bultzatzeko erabakia hartu zuen, 80. hamarkadak lehe- nengo pausuak ematen zituen hartan. Kirola bultzatzeko eta horretarako lagun- tzak jasotzeko elkarte bihurtu ziren: hala jaio zen 90. hamarkadan Sopelanako Peña Txuri Surf Taldea.

Zenbat olatu ez diren joan eta etorri ordutik: surf eskola sortu dute, udan herri txapelketa bat baino gehiago antolatzen du- te, Euskal Herriko Surf Federazioak So- pelanako hondartzetan prestatzen dituen txapelketetan beti euren laguntza eskaintzen dute, martxoa inguruan areatzak garbitzeko eguna antolatzen dute, Prestige petrolio-on- tziaren hondakinak garbitzen ere belztu zituzten eskuak... Ibilbide luzearen gainean

taldeko arduradun batek, Gonzalo Tejadak, azaldu moduan: “*lehen surfalariak lau ziren, orain jende asko dabil, baina euren artean des- berdintasunak ere antzematen dina: batzuek kirol egiteagatik egiten dute, beste batzuek sur- faren filsofia eta sentimenduak barru- barruan daroaguz*”.

Hondartzak batzen duena

Bizkaiko surf talde garrantzitsuenetariko eta zaharrenetarikoen artean dago Peña Txuri, eta Tejadak azaldu legez: “*lagun talde handi bat gara, natura maite dugu eta hondartzak batzen gaitu: surfak baino gehiago hondart- zak batzen gaitu, horregatik garen 160 bazki- detatik denek ez dute surfa egiten*”. Bestalde, eskolaren gainean hurrengo diosku Teja- dak: “*David Bustamantek dauka horren ar- dura, sopoloztarrek daukate lehentasuna, lehe- nengo gure herriari zerbitzu bat eskaini gura diogu, ez daukagu inabazi asmorik, asteen ze- har eta asteburuetako ikastaroak daude*”. m

informazio gehiago: www.bizi-bizirik.com

LAIKAK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328



ANDER DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

JATETXE BEGETARIANO

- Eguneko menuak
- Asteburuetan menu bereziak

Sertutxa 4, Sopela
Telf. erreserbak: 645 732 991



ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKE-
Lacofris, s.l. **SERVITEC**



- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZU-NA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBIT- ZUAN

& 94 430 52 00 **Kasune, 18 • ALGORTA**

BEROGAILU ETA ITURGINTZA



T: 430 53

HIRURAK

Sarrikobaso 15

Josune Pascual > hasiera-hasieratik Pasioko parte-hartzailea

“Aste Santuko zita bazterrezina da”

Berangoko Pasioak 25 urte bete ditu aurten, eta Pasioa barru-barrutik zelakoa den ezagutzeko hastapenetatik ikuskizunean parte hartzen duen lagun baten berbak dituzue hurrengoak. Josune Pascual berangoztarra 9 urte zituenetik da Pasioko parte-hartzaile, eta gaur egun 32 urte dauzka. 7 urtez katekista izandakoa da eta oraindik ere gazte fededunak badirela uste du.

Berangoko Jesusen Pasioan 9 urte zeuzkala lehenengoz parte hartu zuenetik Josune Pascualek ez du behin ere huts egin. Herritar baten larruan ipini zen lehenengo aldi hartan, gerora pertsonaia interesgarriagoak antzeztu ditu: Claudia Procla (Pilatosen emaztea), Herodias (Herodesen andrea), Veronica (Jesusi aurpegia garbitu ziona), Herodesen Gorteko dantzaria, Judasen itzala, Profetaren itzala, Maria Magdalena... Azken hori eta Herodias izan dira gehien gogobete dutenak: “Maria Magdalenarena nire buruarengan eragin handiena izan duena izan da lagun maite bat galtzeak dakarren mina zelakoa den sentitzen lagundu dit, ostera, dibertigarriena Herodiasena izan zen, munduan jaiotako mari-purtzil eta asmo txarreko emakumerik maltzurrena zen. Bi antzezpen guztiz kontrajarriak dira, baina biak izan ditut oso gogoko”. Berarentzako Pasioak zer esangura



Josune Pascual Berangoko elizaren alboan

daukan horrela azaldu du: “*Aste Santu guztietako zita bazterrezina da niretzat; ikuskitun erlijiosoa izanik jendeak pentsa lezake oso aspergarria eta kantsagarria izan daitekeela, niretzat ez, udako 3 hileko oporrak baino gura nituen Aste Santuko 4 jaiegunak; Sopelanako, Berangoko edota Bilboko jaietan bezain ondo pasatzen dut*”.

Pascualen esanetan, Pasioan parte hartzeko fededun izatea ez da beharrezkoa: “denentzako ateak zabalik daude bai fededunentzako eta fededunak ez direnentzako; ekitaldi kulturala ere bada, eta norbanakoak erabakiko du modu erlijioso, kultural, edo antzerki lan baten modura bizi gura duen”.

Gaur egungo gazteak fededunak badirela deritzo, “baina fedea beste modu batera bizi dute, elizara domekero ez joateak ez du esangura fededunak ez direla, bakoitzak bere modura eta gura lekuan egiten du otoitz: eliza batean, Galeatik paseoa zabiltzala...” Be-

«Fededunek eta ez-fededunek parte har dezakete Pasioan»

rangoko Pasioari alde onak bakarrik ikusten dizkio, baina pasarte triste bat ere badauka: “parroko berri bat etorri zen herrira, hark ez ei zuen ondo ulertu Pasioa, gerora bultzatu bazuen ere, tresna eta gauza guztiak gordetzeko beste leku bat aurkitu behar izan genuen”. m



AURTENGO LIBURUAREN ASTEA FRIDA KALHOREN OMENEZ

Apirilaren 19tik 23ra bitartean Liburuaren Astea ospatuko dute Berangoztarrek. Nazioarteko Liburu Egunaren harira (Apirilak 23), aste osorako ekitaldiak antolatu ditu Berangoeta kultur etxeak, batez ere umeei begira. Ekintza denak Berangoko kultur etxean lekutuko dira arratsaldeko 17:30etik 20:00etara. Aurtengo ekitaldi multzoa Frida Kalho margolari mexikar ezagunaren egunerokoan oinarrituko da, haren pentsamendu, poema eta ametsei gorazarre eginez. Egunakariak eskuz egiteko lantegia antolatu dute hilaren 19rako; sormenezko idazkera sustatzeko lantegia hilaren 21ean egingo dute; murla egiteko lantegia apirilaren 22an izango da eta ipuin kontaketa batek emango dio amaiera Liburuaren Asteari Berangon.

Jose Antonio Fano > abeltzaina

“Makinetan-eta aurrerakuntza handiak egon dira, baina salmenta-prezioak ez dira bat ere aldatu”



Azken 25 urteotan egunero 14 orduz egin duela behar aitortu digu Fano jaunak

Junkeras baserrian bizi da Jose Antonio Fano jaio zenetik. Bere birraitite, aitite eta amaren baserria etxalde edo granja bihurtu zuen 1979an, “familia aurrea ateratzeko, lehengo korta txiki geratu zen-eta”. Esnea saltzen zuten orduan, familia osoa ibili zen egiteko horretan 15 urte baino gehiagotan. “Esnea atera eta polisetan sartzen genuen, dena guk, garai hartan, granjaren sasoi onean 120 abel-buru baino gehiago eduki genituen”, ondo gogoan dauka Plentziako baseritarrek. Esnea saltzeko dendatxo bat ere ipini zuten herrian Fanotarrek, baina baserritar askoren oinordekoak legez, Jose Antonio Fanoren semeak ere heldu ziren eta kaletarren bidea hartu zuten. Fanori erretiroa hartzeko adin-muga heldu zitzaion eta semeak berak bakarrik esne-salmentagaz ez zuela segituko aitortu zion aitari. Dendatxoa itxi egin zuten orduan, eta esnea ekoizteari utzi, orain dela 10 bat urte. Alabaina, ganaduzale plentziarrak eta semeak granjari eustea lortu zuten, osterantzean ez zuten esnerik salduko, behi-okela

salduko zuten. “*Hanakin bati saltzen diogu okela eta berak Plentzian eta Sopelanan saltzen du; ez daukagu labelik baina primerako okela da, primerakoa*”, diosku Fanok.

Teknologia eta aurrerakuntza kontuen inguruan ere jardun du Plentziko ganaduzaleak: “makinetan-eta aurrerakuntza handiak egon dira, baina salmenta-prezioak ez dira aldatu: esnea, okela ia lehengo prezio berdinean saltzen dira, 25 urte pasa dira eta berdin antzeko segitzen dugu, lan asko eta irabazi giti”. Azken 25 urteotan egunero 14 orduz egiten zituela behar aitortu du Fanok eta zeozelan ulertzen duela gazteek horrelako esklabu bihurtu nahi ez izatea.

400 urteko baserria, Junkeras Plentziako itsasadarren alboan dago Junkeras baserria, eta han ihi asko hazten direnez hortik hartu ei du izena baserriak. Hala ere, Fanok azaldu duenez baserriak 400 urte baino gehiago izan ditzake, guxtienez 100dik gora baditu 1896an erosi zuelako Fanoren birraititek. m



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



krimea

Negubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA



VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta askotarikoak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

EKITALDIEN BERRI
SAKELAKOAN JASOTZEKO
AUKERA DAUKATE
GORLIZTARREK

Gorlizko kultur etxeak antolatzen dituen ekitaldien eta ikuskizunen berri sakelako telefonoan jasotzeko aukera daukate gorliztarrek. Informazio hori segapotoan irakurri gura izanez gero, 5649 zenbakira hurrengo mezua bidali besterik ez da egin behar: *gorlizko.user.alt*a. Mezuak 0,15 euroko kostua dauka eta hortik aurrera Kultur Etxeko agenda sakelakoan jasoko du eskatzaileak.

HERRI URRATSERA
JOATEKO IZENA EMATEKO
EPEA ZABALIK PLENTZIAN

Maiatzaren 8an Senperen ospatuko den Herri Urrats ikastolen festara joateko irteera antolatu du Goñi Portal kultur etxeak. Izena emateko epea apirilaren 26ra arte egongo da zabalik eta irteerak 8 euro balio du. Herri Urratsera joateko asmoa daukan plentziarrak Goñi Portaletik pasa besterik ez du egin beharko.

IPUIN KONTALARIAK
GORLIZEN ETA BARRIKAN

Liburuaren Eguna ospatzeko ekitaldiak prestatu dituzte Barrika eta Gorlizen. Apirilaren 23an bai barrikarrek baita goliztarrek ere ipuin-kontalarien ikuskizunagaz gozatzeko aukera edukiko dute. Barrikako hitzordua Liburutegian izango da 12:00etan eta Gorlizkoa Eloisa Artaza kaleko gelan 18:30ean.

HERRIAK

Liburutegien katalagoak sarean daude



Helbideak: www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua eta www.liburutegiak.euskadi.net/bilgunea

Euskadiko Liburutegi Sistemaren Sarea sortu du Eusko Jaurlaritzak, bertan 109 herri liburutegietako katalogoa Internet bidez kontsulta daiteke: sarearen bitartez ez da beharrezkoa liburutegira bertaratzea etxetik edo behartokitik liburua non dagoen jakiteko aukera dago. Horregaz batera, Euskadiko Liburutegien Bilgunea ere osatu dute eta horren bitartez erakunde publiko zein pribatu-en liburutegi esanguratsuenen katalogoak ere sareratu dituzte. Udal liburutegiez gain beste hainbat liburutegi biltzen ditu Bil-

guneak: 3 unibertsitaterenak (EHUkoa, Deustukoa eta Mondragon Unibertsitatea) Sancho el Sabio Fundazioa, Labayruren liburutegia, Loiola Santutegiko liburutegia, Eresbil (Musikaren Euskal Artxiboa), Eusko Jaurlaritzaren liburutegiak, Foru Aldundien liburutegiak. Bilgunea eta Katalago Bateratuen artean 130 liburutegi daude sarean. Eskualdeko udal-liburutegien artean momentuz sarean hauek daude: Getxo (4), Erandio (2), Leioa, Berango, Plentzia eta Urdulizkoa. ^m

Api.10-26

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Fax.: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Antzezaleak taldeko kideen lanak.** Algortako kultur etxea. Apirilak 18-30.
► **Batxilergo institutuko lanak.** Erromoko kultur etxea. Apirilak 19-29
► **Getxoko argazki zaharrak.** Liburu Azokako ekitaldien barruan. Geltoki plaza (Algorta). Apirilak 22-24.

PLENTZIA

► **Koldo Egiaren margoak.** Erakusketa gela. Apirilaren 15era arte.
► **Jose Ignacio Olabarrieta eta Jon de la Huertaren margoak eta argazkiak.** Erakusketa gela. Apirilaren 29ra arte.

GORLIZ

► **Argazki eta Diapositiba lehiaketako lanak.** Erakusgela. Apirilak 14-22.

ERANDIO

► **Belatik lurrunera. Ontzi modelismoa.** Josu Murueta kultur elkarte. Apirilak 12-26.

LEIOA

► **Euskarazko filmak iragartzeko kartelak.** Kultur Leioako Erakusketa Aretoa. Apirilak 11-17.
► **Mamen Arrutiren margoak.** Kultur Leioako Erakusketa Aretoa. Apirilaren 29ra arte.



Benito Lertxundi (Orio, 1942) 40 urte baino gehiago daroaz euskal musikaren oholtzan

► **Leioa**

Benito Lertxundi eta Hiru Trukuren kontzertuak

Ruper Ordorika, Joseba Tapia eta Bixente Martinezek osatzen duten Hiru Truku taldeak kontzertua emango du hilaren 15ean Kultur Leioan eta besteak beste *Nafarroako kantu zaharrak* azken diskoko kantak joko ditu hirukoteak. Hala ere, ez da Kultur Leioak Euskara Zerbitzuaren laguntzagaz hil honetarako antolatu duen kontzertu entzutetsu bakarra. Izan ere, Benito Lertxundik ere emaldia eskainiko du Leioan eta oriotarragaz hitzordua apirilaren 22an izango da. Hiru Trukuren kontzerturako sarrerek 8 euro balio dute eta Benito Lertxundirentzakoez 12 euro.

• **Non:** Kultur Leioa • **Noiz:** Apirilak 15 eta 22 • **Ordua:** 20:30

17, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

► **Negocios ocultos.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Apirilak 20, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

► **Super size me.** Cinema Paradiso. Azpitoludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Apirilak 22, barikua. 22:00.

► **Espias supersecretos.** Haur zinea. Getxo Antzokia. Apirilak 24, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00.

► **Sobre el Arco Iris.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Apirilak 27, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

LEIOA

► **La jirafa.** Perseo zineforuma. Zine alemaniarrari eskainitako zikloaren barruan. Kultur Leioa. Apirilak 19, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

► **Contra la pared.** Perseo zineforuma. Zine alemaniarrari eskainitako zikloaren barruan. Kultur Leioa. Apirilak 26, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

► **Polar Express.** Haur Zinea. Kultur Leioa. Apirilak 24, eguena. 17:30. Sarrera: 3 euro.

► **Descubriendo nunca jamas.** Zine komertziala. Kultur Leioa. Apirilak 23,

19:00 eta 22:00. Apirilak 24, 20:00. Apirilak 25, 20:00.

► **Ke arteko egunak.** Euskal Zinearen Astearen barruan. Kultur Leioa. Apirilak 12 eta 17. 20:00. Sarrera: 2 euro.

PLENTZIA

► **Bombom el perro.** Erakusgela. Apirilak 15, barikua. 22:00.

► **Yu-Gi-Oh.** Haur zinea. Erakusgela. Apirilak 16, zapatua. 18:00.

► **9 songs.** Erakusgela. Apirilak 22, barikua. 22:00.

► **Un papa de pelikula.** Gazte zinea. Erakusgela. Apirilak 23, zapatua. 18:00.

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Euskararen 7 bekatu nagusiak.** Bekoa ikastetxea. Apirilak 14, eguena. 20:00. Gonbidapenak Euskara Zerbitzuan.

GORLIZ

► **Maite Franco ipuin-kontalari.** Euskaraz. Eloisa Artaza. Apirilak 23, zapatua. 18:30.

GETXO

► **Egizu lo Tartalo.** Haur antzerkia. Dar-Dar taldea. Andres Isasi Musika Eskola. Apirilak 16, zapatua. 19:00. Sarrera: 3 euro.

► **UBU.** Emakume Bideak zikloaren barruan. Aztiak taldea. Getxo Antzokia. Apirilak 22, barikua. 19:00. Sarrera: 3 euro.

BESTEAK

SOPELANA

► **Unai Elorriaga.** Hitzaldia. Hall Kulturala. Apirilak 19, martitzena. 19:00.

► **Kike Amonarriz.** 888 Txiste liburuaren gaineko hitzaldia. Hall Kulturala. Apirilak 21, eguena. 19:00.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

Q V S

20 ANIVERSARIO
URTEURREN

KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

ZINEMA

GETXO

► **Luna de Avellaneda.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Apirilak 13, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

► **El tiempo del lobo.** Cinema Paradiso. Azpitoludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Apirilak 15, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.
► **Zientzia Fikzioa.** Haur Zinea euskaraz. Getxo Antzokia. Apirilak



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Algorta



Leioa



Skyline

Hiri bat deskribatzeko orduan Ameriketako Estatu Batuetan sarritan erabiltzen duten berba da *skyline*. Hango hiri gehienetan etxe-orratzak daudenez, zeruaren aurrean eraikin hauek sortzen duten irudiari deitzen diote *skyline*. Gauzak horrela, hango hiri bakoitzak hiriaren beraren adierazgarri den *skyline* propioa dauka. Gure eskualdeko herrien *skyline* posibleen bila abiatu gara gu. Argazki hauek ariketa horren lekuko dituzue.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Gorliz



Algorta



Lamiako

[berbetan]

Milaka larriaidi arindu dituzten plastikozko komun txiki horietako asko Arlan enpresak alokatutakoak dira. Ugazaba eta sortzailea, Jose Txolo Landaluze, Algortan bizi da 1968tik, jaiotzez loiuztarra bada ere. Landaluzek, badaezpada, ohartarazi gura izan gaitu: beharbada komunak dira Arlanen produkturik ezagunenak kaletar arrunton artean, “*baina hori adartxo bat besterik ez da, denetarik alokatzen dugu eta*”. Enpresak Uribe Kostako muga-mugan dauka egoitza, Erandiok eta Sondikak bat egiten duten lekuan, Asuako errotonda-tik oso hurbil. Hantxe elkartu gara Txolo Landaluzegaz. Abertzalea, euskaltzalea, aurrerakoia... Luze jardun genuen enpresaburuen egitekoaz, lan munduaz, euskararekiko atxikimenduaz, azken batean Euskal Herriaz, eta ezeren ganetik, baikortasuna igarri genion 61 urteko gizon honi.

Txolo Landaluze

Bertoko produktua

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Enpresaburua zara...

—Bai, hala uste dut...

—...baina, ez ohiko enpresaburua?

—Zergatik ez ohikoa? Enpresaburuok irudi bat daukagu gizartearen aurrean, baina ez da egiazkoa. Enpresaburuak handiak ala txikiak izan daitezke, onak ala txarrak... mota askotarikoak. Eta ni bat naiz, bat baino ez.

—Ona, orduan?

—Uste dut baietz. Baina nire langileei galdetu hori. Ni neu gauzak ondo egiten ahalegintzen naiz.

—Zein da zure istorioa? AEBetan esaten denez, *self made man* horietakoa zara zu?

—Hara, ni hamalau urterekin hasi nintzen lan munduan, eta karrera -peritua izateko ikasi nuen-, gauzez egin nuen. Azkenean ez nuen amaitu, baina tira. 1963tik 65era beste mundu batzuetan ibili nintzen, klandestinitatean, eta buelta-koan eraikuntza-enpresa batekin hasi nintzen. Han esperientzia apur bat hartu

eta 1974an Arlanekin hasi nintzen, alokai-ruekin. Ordutik hona Arlanen egon naiz. —Euskararenganako konpromisoagaz, gainera...

—Bai noski. Txikitan galdu egin nuen euskara; esan nahi dut ez nuela aukerarik eduki euskara ikasteko. Zazpi hilabeterekin osaba-izekorekin bizitzera eraman ninduten Lutxanara, eta han ez zegoen batere euskararik garai hartan. Gero,

“Enpresaburuok irudi bat daukagu gizartean, baina ez da egiazkoa”

hogei urterekin-edo hasi nintzen ikasten. Betikoa... Arlanen orain dela hamaika edo hamabi urte euskara programa bat daukagu. Euskara plan bat eduki duen Bizkaiko lehenengo enpresa izan ginen; Euskal Herri osoan, hasieran, hiru enpresek eduki genuen halakorik: Beasaingo CAF-ek, Gipuzkoako beste batek eta geuk.

—Eta zertan da plan hori?

—Hemen, momentu honetan, %55 inguru euskaldunak gara. Aurren, adibidez, arratsaldero egoten da ikastaro bat eta gero nik, adibidez, ordenagailuan Bai&By daukat. Hemen hiruzpalau gabiltza metodo horrekin. Beste programa bat daukagu langile guztiei laguntza emateko, euren lanean dauzkaten dudak argitzeko. Horretaz arduratzen den enpresa daukagu kontratatuta: Artez.

—Eta langile berri bat hartzean, euskara jakitea eskaten zaio?

—Ez da derrigorrezkoa, baina kontuan hartzen da noski.

—Hala ere, enpresa mundu hau, lan mundu hau, ez da oso erdalduna, batez ere Bizkaiko inguru honetan?

—Hori ez dago hain argi. Hemen, adibidez, bezero askorekin euskaraz dauzkagu



harreman guztiak. Euskal Herriko leku askotan jende euskalduna dago, eta horiekin euskaraz bakarrik egiten dugu. —Euskararenganako konpromisoa aipatu dugu. Sozialki ere badaukazu konpromisoren bat... —Bai, nola ez. Euskal Herriak dena merezi du eta horretarako gure lana beharrezkoa da. —Euskariako sortzaileetako bat zara. Zer lan egiten duzue?

“Enpresaburuontzat berdin-berdina da Ibarretxe plana egotea ala ez egotea”

—Ez naiz zehatz gogoratzen zer urtetan sortu zen erakundea. 1985 edo 1986 inguruan izango zen. Helburua autodeterminazio eskubidea defenditzea da. Ideien munduan egiten dugu lan; gure zeregina beti izan da garrantzitsua, eta hor gaude. —Nahikoa lan isila egiten duzue, ez zarete etengabean komunikabideetan agertzen... —Horretarako badaude beste batzuk. Guk lan egiten dugu, eta lan baino ez. Ikusten ez den lan hori. —Eta zein da? —Proposamen asko egin diegu alderdi politikoei, sindikatuiei, Lizarra-Garazi barruan egon ginen, han ere lanean... Orain foro sozialen eztabaidagunean ere bagaude. Pasa den astean konpromisoa sinatu genuen Bilbon. Saltsa guztietan gaude...

“Hemen ez dago bigarren sektoreko krisirik; lana daukagu, eta ona gainera”

—Langileak etorriko balitzaizkizu orain greba egin behar dutela esatera, zer egin-gozenuke? —Ez dut pentsatu horretaz. Hemen asko hitz egiten dugu, eta hitz egiten denean ez da oztoporik egoten. —Etengabe entzuten dugu enpresariak Ibarretxe planaren kontra daudela, enpresariak Ibarretxe planaren alde daude-

la, edo hau eta beste daudela. Zer deritzozu? —Ibarretxe plana berdina da enpresariarentzat edo enpresaria ez denarentzat, eta esaten diren gauza horiek bazterrak nahasteko ahalegina besterik ez dira. Arazo bakarra da enpresa munduaren barruan gauzak gelditu egotea nahiago dutenek, euren interesengatik, Ibarretxe plana ez dakit norentzat ona ala txarra izan daitekeela esaten dutela. Eta berdin dio, nire

ustez. Lan egin nahi duen enpresaburu batek berdin egin dezake lan Ibarretxe planarekin ala Ibarretxe plan barik. Argi dagoena zera da: herri honek bere ekonomia zuzentzeko ahalmena daukan neurrian, negozioak hazteko eta etekinak herritar guztiok jasotzeko aukerak handiagoak izango dira. Eta bide batez, lanpostuak sortuko dira. Aldiz, ahalmen hori ez daukagun heinean bestelako faktore batzuri lotuago egongo gara. Bost axola niri enpresaburuek Ibarretxe planaz daukaten iritzia, enpresa arloari dagokionez behintzat. Ekonomia guk geuk zuzentzen ez dugun artean, galtzaile aterako gara noski. Kezkatzen nauena da urrats hori egiteko aukeratzen den prozedura benetan denon apustua izatea. Ibarretxe plana tresna bat

izan daiteke. Eta herri honek herri modura etorkizuna daukala uste dugun guztion artean adostu behar dugu zelan erabili. —Beti esaten da hemengo egoera politikoak kalte egiten diola ekonomiari, enpresei, inbertsioei... —Hori ez da egia. Enpresa munduan, normalean, hauxe izaten da joera: ez dadila ezer mugitu, hala nik kontrola dezake-

dalako. Ezer mugituz gero, arriskua dago ezin kontrolatzeko. Hori da gakoa, nik uste. Ustez aberririk ez daukan kapitalak, eta diruak, eta merkataritza-harremanak... egonkortasunean garatzen dira gehien, jakina; horregatik gura izaten da zalantzazko egoerarik egon ez dadin. Baina zalantzazko egoerak baloratzen jakin behar da ere bai. —Esaten da ez dakit zein indize handitu dela, ekonomia hazi dela... Nire poltsikoa, eta beste askorena, ez dira oraindik ohartu baina! Non igartzen da hori? —Nire ustez, euskal gizarte honetan ez dago ongizatearen gizartea aldarrikatzen ez duenik. Aldarrikapen logikoa da gainera. Hara, atzo irratian entzun nion bati esaten, Iparralde-Hegoalde harremanak munduan sortu duen egoera hain larria izanik iparraldeko ongizate gutxitxoago eskatzen hasi beharko garela hegoaldekoek ere zertxobait gozatu dezaten. Tira, gu bizi garen lekuan, Euskal Herrian, ongizatea aldarrikapen logikoa da, baina gizartean ordain bat daukana: norberaren poltsikora ailegatzen ez den diru hori. Begiratu orain hogeit urtekoari eta esaidazu zelan zeuden kaleak, pilotalekuak, zahar-egoitzak, jubilatuetxeak (egotekotan)... Hori guztiori lorpen soziala da, poltsikora ez datorkiguna baina goza dezakeguna. —Zuena ez da beren beregi bigarren sektorea, hirugarrena baino, baina hala ere itaundu egingo dizut, badaukazuelako harremanik... Bigarren sektorea krisian dago Euskal Herrian? —Ezetx uste dut. Badaukagu lana, eta ona gainera. Sektore batzuten egoera ez da beharbada beste batzuena bezain argia -oraindik badaude bermoldatu beharreko industria astun zantzuak: Babcock, La Naval...-, baina makina-erreminten adarra osasuntsu dago, elektrotresna ere ondo dabil, industria nautikoa egonkortu egin da... Alde horretatik ez dut uste herri honetan arazorik egongo denik, guztiz kontrakoa baizik. m

Kanpamartxo

Apirilaren 24an, domeka

ERANDIO-GOIKOAN

11:30 Dantzak: Goi Alde, Trabudu, Uztargi

13:00 Bertsolariak: Altzaga ikastolako bertsolari gaztetxoak + Etxahun Lekue, Xabier Paia eta Oihane Enbeita

14:30 Herri bazkaria

17:00 Betiko kantuak nagusientzat eta antzerkia txikientzat

18:00 Erromeria: Tapia eta Leturia

Egun osoan trikiti doinuak Roberto eta Keparekin eta umeentzako jolasgarriak.

Antolatzailea: Berbots

Laguntzaileak: Goialde, Trabudu, Uztargi eta ALBE

Babesleak: Erandioko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Euskadiko Kutxa, Eroski.



AREETA, 2004

Etxebizitza

The balde

UK egiten dugunoi izugarri gustatzen zaigu *The balde* aldizkaria (www.thebalde.net): zinez aldizkari intelijentea eta oso gustu onez egina. Agerkari horretan hain zuzen ere ikusi genuen orain bistan duzun argazki adierazgarri hau. Areetan egin zuten eta gurean hain larria den etxebizitzaren arazoaren metafora hunkigarria iruditu zitzaigun.

Gurean, erlijioa eta katolizismoa sinonimoak dira ia, emigrazioaren hazkundera hori ere apurka aldatuz doan arren. Beraz, eta eleiza kristauak -parte hartzearen aldetik behintzat- garairik hoberenak bizi ez dituela ikusita, erlijiozaletasuna bera ere sano makal dagoela pentsa genezake. Baina ez da guztiz hala, antza. Gertatzen dena da erlijioa beste modu batera bizi dugula, instituzioetatik kanpo. Hala ere, gure helburua, oraingoan, ez da hori sakon aztertzea -ez gara hain handigurak-, eleiza katolikoa gure eskualdean zelan dabilen jakitea baino.

Erlijososak gara?

Eleiza katolikoa Uribe Kostan

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Uribe Kostak abadegai bakarra

Bilboko seminarioan hamarren bat ikasle ibiliko da gaur egun. Zerikusirik ez orain 40 urte inguruko kopuruakaz; ehunka ibiltzen ziren orduan, baina 1966tik hona -Vatikanoko II. Kontzilioa egin zenetik, hain justu- gainbehera geldiezina izan da Europa osoan. Bizkaiko abadegaietatik, bakarra da Uribe Kostakoa. Algortakoa, zehatzago esateko. Laster egingo da abade gainera; hil honetan edo hurrengoan.



Izenburuko itaunarentzako erantzun erraza datorkigu burura bat-batean: batzuk bai eta besteak ez. Dena dela, eleizaren-ganako atxikimenduak azken hamarkade-tan eduki duen beherakada izugarriak ez digu pentsarazi behar erlijioari bizkarra erakutsi diogunik guztiz. Hala diosku behintzat Angel Mari Unzueta Uribe Kostako bikarioak: *“Onain urte batzuk esaten zan erlijioa apurka-apurka desagertuz doala, baina gaur egun soziologoek ez dabe hori esaten, erlijioa bizitzeko modua aldatu dala baino. Jakina, jainkobako kopurua handituz doa, baina ez hain arin. Jende askok badeko halako erlijiotasun bat, baina maila pribatuan bizi dau, instituzio barik...”*.

«Baserri-giroan indar handiagoa daukie, ondino, ohitura kristauek»

Esandakoa ez dagokio Uribe Kostari bakarrik noski, fenomeno zabala da eta. *“Egia esan -dio Unzuetak-, zentzu horretan ez dago alde handirik eskualde honen eta Bizkaiko besteen artean. Hori bai, eskualde beraren barruan be aldeak dagoz hiritik landara. Baserri-giroan indar handiagoa daukie, ondino, ohitura kristauak”*.

Domekero-edo mezatara doazenen kopurua asko makaldu dela agerikoa da.

Gehienbat jende nagusia da, baina nagusien artean ere gutxiengoa da eleizara joaten dena. Eta andrazkoak gehiago dira gizonezkoak baino. Lehen ere, jende gehiago joaten zenean, hala zen. *“Erljioaren eta beste balore batzuen transmisioa, gure kulturaren, andren esku egon da beti”*, uste du Angel Mari Unzuetak. Zer esanik ez, oso gazte gitxi joaten da eleizara, eta horien artean pentsakera kontserbadorea dauka-tenak dira gehien. Krisia, antza denez, sakonagoa da euskeraz dakitenen gazteengan.

“Kalitate” eskasagoko kristauak

Gauza jakina da, ordea, erritu katoliko batzuek oraindik eusten diotela -garai ba-

tean baino moteltxoago bada ere- meza arruntak dagoeneko galdu duen ospeari. Igarotze-errituak deritzenak dira: ezkontza, bataioa, jaunartzea, hileta.... Tradizioaren pisuak oraindik dauka garrantzia kasu horietan, eta gainera, Angel Mari Unzuetak dioen bezala, *“danok behar doguz errituak eta hileta eritua, esatenako, Eleizak deko landuen”*. Bikarioaren ustez, baina, jende gehienak *“azpian dagoen zentzunari*



Alboko orrialdean, sinestunak mezatan Barrikan. Goian, meza bat Getxoko Andra Marin

jaramon egin barik” hartzen ditu Eleizaren zerbitzu horiek. Gauza bera esan genezake hainbat ohituren gainean: *“San Blaseko kordoia, barbarako, askok erabilten dabe, baina benetako esangura zein dan jakin barik”*. Azken batean, kristauen perfila asko moteldu da.

Eleiza katolikoak baduka beste alderdi

tzea. Aisialdia be sartu ahal dogu hor, gaztetxoakaz egotea eta abar. Baina hor be krisi handia dago numeroetara joanez gero”.

Abade gitxi

Azkenik, eleizaren makalaldia abadeei eurei ere badagokiela gogoratu behar da. Gero eta gitxiago dagoz, eta horrek anto-

«Eleizak emoten dituen gizarte-zerbitzuek dute ospe gehien gurean»

bat eleizkizunetatik aparte, eta horrek parte hartzea handitxoagoa dauka Uribe Kostan.

“Inguru honetan ospea dekona, esate baterako, Caritas edo beraren antzekoak dira: edadekoei laguntzea, gaixoen ondoan egotea... hau da, gizartearen premiak ase-

lakuntza forma berriak bilatzera bultzatu du Eleiza. Uribe Kostan ere hala gertatzen da eta, esate baterako, Plentzia, Gorliz, Armintza eta Lemoizko parrokien ardura abade bakarrak dauka. Beste batzuek bina dauzkate (Barrika eta Berango, Erandio eta Lamiako...). Badaukate lanik. ^m

Mezatara joan baino zeozer gehiago

Luis Mari Lucarini, sortzez bilbotarra, gaztetatik bizi da Sopelanan. 23 urte zeuzkala, herrira ailegatu eta gitxira, parrokiara jo zuen, ea zer egin behar zen itauntzera. *“Txikitatik naiz katoliko elizkoia, eta begitantzen zitzaidan mezatara joate hutsa ez zela nahikoa, zeozer gehiago egin behar zela”*. Lucarini katekesia emoten hasi zitzairen 14 urte inguruko neska-mutikoei, *“ebanjelioak azaldu, eleiza zertan den esplikatu...”*. Geroago konfirmaziorako katekesia emoten

«Gauza askotan, abadeak-eta aurrerakoiagoak dira kaletar arruntak baino»

hasi zen, eta orain, 53 urte dauzkala, helduei emoten die. Orain gitxi Bilboko Gotzaitegiaren ikastaro bat ere hartu du, zeregin horretarako prestatzeko. Uribe Kostan Luis Mari Lucarini bezala dabilzanak ez dira asko. *“Ni nagoenetik gainbehera doa sekularren parte hartzea”*. Sopelanakoa kexu da beraren belaunaldiko gehienek eleiza zapaldu ere ez dutela egiten, baina bitxia deritzo jendeak eleizarekiko daukan jarrerari: *“Gauza askotan, abadeak eta hemen gabiltzanok askoz aurrerakoiagoak gara kaletar arruntak baino. Hemengo abadeak gazte askori esan die hobe dutela eleizan ez ezkondu, eta eurek ezetz, eleizan ezkondu behar direla derrigorrez. Izan ere, batzuek pentsatzen dute hau supermerkatur dela: ‘Nire umearen bataioa egun honetan eta ordu honetan gura dut’. Jendea ez da konturatzen hau alkattea dela, eta ez zerbitzuak jatetxean bezala kartara aukeratzeko lekua”*.





KORRIKA 2005 ERANDIO ALDEAN



Euskararen alde lasterka

Martxoaren 19an gure eskualdea zeharkatu zuen Korrikak, arrakasta handiz. Izan ere, aurtan inoiz baino lagun gehiago bildu zen euskaldun egiten gaituen gure hizkuntza zaharraren aldeko lasterketa hunkigarria. Gorlizen antolatzaileen furgonetan sartu eta han igota Asuaraino Korrikaren lekukoa eroan zuten Uribe Kostako euskaltzale guztien erretratua egiten ahalegindu ginen. Argazkiok lan horren emaitza dira.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**







uk

•

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

•

94 491 13 37 edo uk@aldizkaria.biz

•

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

zineeskola

Oskar Fernandez

Zinema: artea, zientzia edo industria

Zalantzarik gabe hiru gauza batera dira. Zientzia eta teknologiaren garapenari esker Lumière anaiek lehenengo grabatzaile eta proiektorea asmatu zuten. Asmakizuna gauzatu zenetik ez ziren urte asko pasatu behar izan artea bihurtzeko eta gero industria botereitsu eta indartsu bilakatzeko, gizarteentzako oso eraginkorra izanik. Beraz, hiru ezaugarri hauek zinema sortu zuten, nahiz eta inoiz ez ondo uztarturik egon. Izan ere, industriarena beste bien gainetik, orain dela denbora luze, nagusitu egin zen eta berdin jarraitzen du. Baina, film baten aurrean, gure begien aurrean, artea baino ez zaigu agertzen. Jakina, film guztiak ez dira sartzen eremu honetan, ezta gutxiago ere. Zinema izatez artea da eta gainera oso erakargarria eta iradokitzailea, baita oso eztabaidagarria ere. Nork ez du inoiz izan oso iritzi desberdina beste batzuekiko film bera ikusi ondoren? Eta zer dela eta zinema kritikoen artean film beraren aurrean hain iritzi kontrajarriak plazaratzea? Kritikok baliabide berdinak edo antzekoak izango dituzte filmak aztertzeko, zinemaren ezagupenak alegia. Puntu honetara heldu ondoren egin dezagun hausnarketa ia zinema kritikaren azpian zer dagoen, batzuetan pertzepzioak hain desberdinak agertzeko. Hortaz, ikus dezagun iritziak nola egiten diren. Bi arlo desberdinek eraikitzen dute zinema kritika: alde batetik, zinemarekiko ezagupenak ditugu; beste aldetik, bakoitzaren prestakuntza, nortasuna, ezagupen orokorrak eta sinesmenak. Beraz azterketa erraza eta sinplea eginez konturatu beharko ginateke bigarren arlo honek iritziak gehien mugatzen dituen delat. Beraz zinemari bi eta bi ez dira lau inoiz izango. 4

Euskal Zinea Leioan

Hilaren 11tik 17ra Euskal Zinearen Astearen barruan euskarazko filmak, berbaldiak...

Kultur Leioak Euskal Zinearen Astea antolatu du apirilaren 11tik 17ra. Euskal filmak eta zinemagintza izango dira nagusi eta ekitaldien artean euskarazko filmen emanaldiak, erakusketa batek eta bi hitzaldik osatzen dute egitaraua.

Astegunetan filmen emanaldiak umeei zuzenduta egongo dira eta goizez bakarrik eskainiko dira (10:00 eta 12:00): *Ilargiaren sekretua* (hilak 11), *Kiriku eta Sorgina* (hilak 12), *Momo* (hilak 13), *Bizitzaren ar-bola* (hilak 13-14), *Gu bai gu* (hilak 13-14), *Ametsen lapurra* (hilak 14), *George eta herensugea* (hilak 15 eta 17).

Bestalde, adin guztientzako emanaldien artean *Ke arteko egunak* (Antonio Eceiza eta Koldo Izagirre, 1989) filma aipa daiteke (hilak 12 eta 17, 20:00). Apirilaren

«Euskal zinemagile edo zuzendariek berbaldiak eskainiko dituzte»

16an film laburrak emango dituzte 20:30tik aurrera: *Txotx*, *40 ezetz*, *Topeka* eta *Amuak*. Emanaldietarako sarrerek 2 euroko prezioa daukate.

Horrez gainera, berbaldiak ere prestatu dituzte: *Unibertsolariak* filmako zuzendari Juanjo Elordik Animaziozko filmen gaineko



Unibertsolariak filmaren kartela

berbaldia eskainiko du (hilak 13), eta *Aupa Etxebeste!* pelikularen zuzendari Telmo Esnal eta Asier Altunak Euskaraz egindako zinearen gaur egungo egoeraz jardungo dute (hilak 16, 19:00).

Azkenik, ezin ahaztu aste osoan ikusgai egongo den erakusketa: euskarazko filmak iragartzen dituzten kartelekaz osatzen da.

Halaber, Perseo zineforumak apirila zine alemaniarrari eskainiko diola ezin esan barik utzi eta *Good bye Lenin*, *La jirafa* edota *Contra la pared* filmak emango dituzte. m

Ez galdu > “Luna de Avellaneda”

• **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** Apirilak 13, eguaztena • **Ordua:** 19:00 • **Zinekluba**



Film bikain eta interesgarri honen atzean Argentinako zuzendari ezagun bat dago: Juan José Campanella. Berak, elkarriketa batean esaten duen moduan film honekin amaiera eman dio trilogia bati. *El hijo de la novia* (2001), *El mismo amor la misma lluvia* (1999) eta azken hau osatzen dute aipatutako trilogia hori. Berak zuzendutako beste filmak *El niño que gritó puta*, ((1991) eta *Y llego el amor* (1997) dira. *Luna de Avellaneda*-k kontatzen duen istorioaren protagonistak Ricardo Darin eta Eduardo Blanco dira, biak bai Argentinan Europan oso aktore ezagunak dira. Jose Luis López Vázquez-ek, klubaren lehendakariak, paper txiki bat du, baina bikain antzeztu du bere pertsonaia. Gizatasunez eta itxaropenez beteriko film ederra da hau.

Erradiografia > Kaskarreko



Kaskarreko taldea entsegu lokalean, Erromon

Izenaren jatorria? *“Lehenengo izena* 100% ozono zuloa *izan zen, gero* Accion Directa, *baina* bazegoen *ordurako* beste *talde bat izen horregaz eta euskaraz* izatea gura genuenez, *Kaskarria* bururatu zitzaigun *eta horren ondotik azkenean Kaskarreko”,* azaldu du Igarki taldekideak. **Hasi ziren:** 2003ko udan batu ziren bi gitarra, euren albora hurreratu zen bateria, ostein ahotsa, tinbalak eta beste denak. **Nongoak dira:** Leioa, Berango, Mungia eta Erromo. **Taldeko kideak:** Eneko Bilbao (ahotsa), Ibai “Aurelio” (bateria), Unai Ortuondo (baxua), Eneko Jalon eta Alex Ramos (gitarrak), Igarki Gonzalez (tinbalak) eta Beñat Vidal

(bertsolaria). **Jorratzen duten estiloa:** Punka, bereziki PunkOi! deritzon estiloa. **Gustuko dute:** Eskorbuto, La Polla... **Diskografia:** Leioako Gazte Eguneako abestia sortu dute. Diskoa ateratzeko “dirua falta” dutela diote, 12 bat abesti dauzkate prest gehienak euskaraz. **Besteak beste, jo dute:** Algorta, Urduliz, Berango, Udondo gaztetxean... **Euskal musikaren egoera:** *“CDa diskoetxeen laguntza barik atera zenezake, baina horretarako dirua behar duzu, diskoetxeek traba asko ipintzen dizkizute, baina ez dabilela hain txarto uste dut; eta kontzertuak emateko zeu mugitu behar zara, bestela...”*. m

Harremanetarako: 626 34 95 84

diskoak

Sibé m'était contéee
Manu Chao
Radio Bemba



Manu Chaoren musika berria ona eta bihurria dugu, perkusio afrikarrakaz, patchanka apur bategaz eta (interesgarriena) chanson-aren irakurketa bereziagaz. Baina 23 abesti dakartzan CDa 130 orrialdeko liburu bikain baten soinua-banda da zehazki. Disko-liburu hau olerkiez eta Jacok Wozniak poloniarrek egindako marrazkiez josita dago. Gehiago gozatuko duzu frantsesa badakizu.

Rumble in Brixton
Stray Cats
Mastertrax



1979an sortu zirenetik, rockabilly-aren apostolu hauek zenbait aldiz banandu eta bildu egin dira. Brian Setzer, Lee Rocker eta Slim Jim Phantom berriro elkartu ziren iazko udan Stray Cats-en 25. urteurrena ospatzeko. Orain hirukote honek zuzeneko disko bikoitz hau (euren diskografiako lehenengoal) kaleratu du; bertan, euren abestirik ezagunenak zein generoko klasiko-eskukada ditugu entzungai.

Kerobia
Kerobia
Gor



2001ean sortu zen laukote gazte honen lehenengo diskoa benetan hunkigarria da musikalki, melodia txukun eta harmonia sakonez josia. Irundar hauek poparekiko grina ez dute ezkututzen, baina oro har, rock doinuak nagusitzen dira CD honetan. Letren aldetik, Xabier Fernandezen poesia (Kerobiako abeslaria eta gitarrajolea ere bada) ederto doako musikaren iluntasunari eta goibel-tasunari.

[kirola]

Eduardo Terreros (Algorta, 1974) ez da ohiko txirindularia, baina bizikleta da bere lan tresna. Ez da inoiz Beloki edo Mayogaz lehiatu-ko, baina eurak bezain ezaguna da bere ogibidean: txirindulagaz hegan egiten du, eta airean trikimailu igarriezinak egiteko gai da. Gogoko ez badauka ere, amerikarrek “spanish fly (eulia)” ezizenaz ezagutzen dute, berak Edu gurago. Malasiako X Gameak irabazi ditu (2004), Alemaniako Munduko txapelketan 2. postua (2002), AEBetako X Gametan 7.postua orain pare bat urte...

Eduardo Terreros

Algortako E. T.

Testua: **Irantzu Sagarmínaga** / Argazkia: **Carlos Terreros**

—BMX Freestyleko kirolaria zara, baina zein estilotan diharduzu?

—BMX freestylearen barruan lau jardue-ra daude: bertikala (half-pipe), kalekoa (street), lurrekoa (flat land) eta lur-saltoak (dirt jump). Ni bertikal estiloan nabil. Bizikleta kirol hau 80ko hamarkadan sortu zen Kalifornian eta txapelketarik garrantzitsuenak X Game deritzonak dira: bizikletak, skateak edo patinak eta moto-kro-seko freestyle kiroleko ikuskizun eta txapelketak dira, horietan garrantzitsuenak eta ezagunenak AEBetakoak dira.

—Euskal Herrian ez dago azpiegitura, eskola, zale... askorik ala bai?

—Denetarik dugu faltan: azpiegiturak, laguntzak... Kirol honetan Euskal Herria Harri Aroan dago. Udalek gutxi edo ezer ere ez dute egiten, eta skate-parken bat edo egiten dutenean ez dituzte kirolarion iritziak eta proposamenak kontuan hartzen. Orain dela urte batzuk, zinegotzi bategaz egon nintzen skate-park bat egiteko asmoagaz Faduratik hurbil: bazegoen

diru-kopuru bat, plano batzuk lortu genituen, hibridoak: bizikleta eta patinerako balio zezaten. Proiektua aurkeztu zen, baina ez zuen gehiengoaren oniritzia lortu, oposizioaren ezezkua bai, eta futbito zelaia daude orain han. Horrek argi azaltzen du gure herriaren egoera ezta? Ikasi, trebatu, eta kirolari onak sortzeko ez daukagu skate-park onik.

“Bidea amaituta zegoela uste nuenean, beti aurkitu dut jarraitzeko bidexidorra”

—Non trebatzen zara orduan?

—Gutxieneko entrenamendu-saioak Bartzelonan, lagun baten half-pipean. Hobetu eta aurrera egiteko AEBetara joaten naiz.

—Hastapenak oztopoz beteak, beraz.

—Orduko umeen antzera bizikletan nenen bilien beti, *California* txirindula bat neukan, etxe atzeko lurretan saltoak-eta egiten genituen. Ostean, nire lehengusuak Irlandara egindako bidaia batetik BMXeko aldizkari bat ekarri zidan, eta zoratu nin-

tzen! 1989an edo hasiko nintzen honetan eta gaur arte. Nire kabuz ikasi dut, bideoak ikusten, jausten ikasi dut jauziak egiten. Deustuko lehengo half-pipean ikasi nuen, baina zaharberritzeko asmoagaz gainetik ipini zioten txapa txarto josi zuten, (funtzionarioak erditik sartzen direnean...) Hemen ez dago BMXeko eskolarik, AEBetan berriz bai, umeentzako udalekuak

antolatzen dituzte eta neguan profesionalentzako daude zabalik, askotan goaz hara.

—Noraino eroan zaitu bizikletak?

—Munduko beste alderaino: Zelanda Berrira. Eta Malasia, Europa, Mosku, AEB... Beste leku batzuetara ere eroatea nahiko nuke: Australia, Japonia edota Hego Ameriketara joateko irrikitan nago.

—Osatzera bakarrik ei zatoz etxera.

—Hala da. Eta haustura asko eduki ditut: oina pare bat aldiz, belauneko lesioak,





Hegan egiten du Eduardok bere txirrundulagaz

eskumuturrekoak, hatzamarretakoak ezin zenbatu, haginak hirutan apurtu ditut, bi hanketako berna-hezur biak bitan apurtu ditut: azken hau izan da larriena, Kalifornian egin nuen irailean...
—Nahiko-nahiko. Etxekoek zer diote?
—Aita beti dabil arduratuta, 16 urte nituenetik uzteko eskatzen dit behin eta berriro. Eta ama, nik uste, askotan min hartzen dudanean pozten dela, orduan etxera natorrelako, alboan naukalako. Benetan gogoko baduzu jarraitzen duzu honetan, sakrifizio

handia eskatzen duen kirola da.
—Lar arriskutsua eta zoroen kirola dela diotenei, zelan azaldu?
—Kirol arriskutsua ez dela ezin esan. Benetan gogobetetzen zaituela eta gozazten dizula esango nieke, askatasun itzela eskaintzen dizu-eta. Truko berri bat egitea lortzen duzunean sentitzen duzun gozamena ikaragarria da, gauza gutxiak lortzen dute hori. Munduan zehar bidaia-
tzeko aukera ere eman dit. Niretzako askatasuna da, zahartzaroa berandutzea, nik

uste oraindik haurtzaroa bizi dudala.
—Kirol arriskutsua, sasoian egotea, hausturak, eta 30 urte dauzkazu.
—(Barreak). Egoera fisikoa baino benetan muga zaitzakeena hausturak dira, eta horiek 20, 25 edo 35 urtegaz hel daitezke. Gorputzak “*honaino heldu zara*” esaten didanera arte jarraituko dut. Beheraldi asko eduki ditut, pentsatu izan dut: “*ezin duzu jarraitu, lesio asko dira, bidea hemen amaitzen da...*” baina beti aurkitu dut bidexidor bat eta hartatik egin dut aurrera. m

Javier Madrazo
Lehendakaria

**Zure aukera,
hemengo ezkerria**

BOZKATU
EB
Ezker Batua
Berdeak

Altera nola que nunca
Orain inolaz baino gehiago

TURISMOAK ETA FURGONETAK ALOGEREAN

**ZERGATIK EZ AUTO BAT
BEHARRIZAN BAKOITZERAKO?**

Norbaitz zergatzen zaren enpresentzat; bakarik nahiz tresneria guztianekin joateko; etxetik irteteko nahiz berri aldean erosteko...
Aukera ugaria ibilgailuak alokatzeko, zeuk hautatu: turismoak, monobolumenak, furgonetak eta ibilgailu industriak.
Beste Alde Ren a Caren auto bat dugu beharizan bakoitzerako.
Eta, bestela, zeuretzat egokituko dugu eta zauden lekuan bertan entregatuko dizugu.

Informazio gehiago, **Renault Gaurisa** eta **Bilbo Berri** kontzesionarioetan

BESTE ALDE
rent a car

GALDETU ENPRENTZAT DAUDEN BALDINTZAK

618 88 12 42

e-mail: bestealde@bestealde.com www.bestealde.com



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

uk

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

[liburuak]

Liburuaren Eguna

Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna da eta **eskualdean** ekitaldiak gogotik egingo dira

Herrialde askok ospatzen du Liburuaren Eguna apirilaren 23an, izan ere egun horretan itzal handiko bi idazleren heriotzaren urteurrena betetzen da: William Shakespearrena eta Miguel de Cervantesena. Egun hori ospatzeko helburuagaz, literaturari gorazarre eta bultzada emateko asmoagaz ekitaldi ugari egingo dira gure eskualdeko herri gehienetan.

Getxon Liburu azoka paratuko dute apirilaren 22tik 24ra bitartean (10:00-14:00 eta 17:00-20:00). Aurten *“Tripi-ttapa munduan”* lelopean, urteroko jendaurreko irakurketan herri eta kultura ezberdinetako ipuinak irakurriko dituzte ikasle getxoztarrek, euskaraz zein gaztelaniaz. Algortako Geltoki plazan ipiniko diren 5 karpatan Getxoko 10 liburu-denden salmahaiak (%10eko beherapena edukiko du



William Shakespeare

«Getxon, Berangon, Sopelanan... liburuak izango dira jaun eta jabe apirilean»

liburu bakoitzak), liburutegien txokoa (lantegiak, maileguak egiteko aukera, etab.), ipuin kontalarien saioak... egongo dira gozagai.

Bestalde, Berangon ere ospatuko dute Liburuaren Eguna eta Frida Kalho margolariaren egunkarian oinarritutako da egitaraua. Ekitaldiak hilaren 19tik 23ra bitartean egingo dira Berangoeta kultur etxean.

Amaitzeko, Liburuaren Egunerako sope-loztarrek prestatu duten egitaraua ezin aipatu barik utzi. Apirilaren 18tik 24ra hamaika ekitaldi egongo dira: Antonio Palomaren azken liburuaren aurkezpena, Unai Elorriagaren hitzaldia, Kike Amonarrizen *“888 txiste”* liburuaren gaineko berbaldia, Iker Diaz ipuin-kontalaria, lantegiak... (ikus Agenda)

Halaber, jakin badakigu eskualdeko beste herrietan ere Liburuaren Eguna ospatuko dutela, berbarako: ipuin-kontalarien emanaldiak egongo dira Barrikan eta Gorlizen. m

liburuak



Atzoko eta gaurko...
Asier Blas Mendoza
Txalaparta

Berlingo harrisia erori eta hamar urte beranduago egindako bidaiaaren emaitza dugu liburu hau. Ekialdeko Europako zenbait atal historiko gogora ekartzen digu idazleak; tartean, gaur egungo egoera soziala eta politikoa dauka hizpide, bereziki, demokrazia berriak sortu dituen etsipena eta frustrazioa bertokoen ahotik.



ilunetik argira
Batzuen artean
Hilk Hasi

Abertzalea, euskaltzalea, fededuna eta klase-kontzientzia handikoa izan genuen Elbira Zipitria. Gerra Zibilaren aurretik zein gerra ostean, emakume donostiar honek ikastolen hazia ereiten jakin zuen. Resu Abasolok, Juan Lopez de Munainek eta Arantxa Urbek bere ahaleginak jasotzen dituzte lan honetan.



**50 IBILBIDE
FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN**

Euskal Herria deskubritzeko 50 txango

Jentilak, Matalas, Lizardi, Txondorak, Elurzuloak, Kontrabandisten bideak, Pozalagua, Baltzola, Aixerroak, Gaztelugatxe, Otsoa... Tokian tokiko ohitura, kultura, istorio eta altxorak ezagutzeko 50 bide.

Aurrez argitaratu gabeko 50 itzuli zirkular

Bizpahiru orduko ibilaldiak, edonork egiteko moduko 50 mendi buelta

Apirilaren 24tik aurrera

egunero ibilbide bat DOAN BERRIAREKIN



Txema Batarrita > Biotz Alai abesbatzako presidentea

“Euskal abesbatzak apur bat atzean geratu dira nazioarte mailan, tradizioari iltzatuta”



Argazkian, Txema Batarrita

Txema Batarrita bilbotarra da jatorriz, baina Algortako labela eskuratua dauka aspaldidanik. Hogei urte daroaz Biotz Alai abesbatzan, eta horietatik azken hamaseitan izan da presidentea. Kudeaketaz arduratzen da, beraz. Musikari dagokionez, kide arrunta da; baxoa, bide batez esateko, elkarrizketa honetan agertu duen eta zuek zoritxarrez entzungo ez duzuen ahotsak ederto salatzen duenez.

—Biotz Alaik baudaka tradizio bat, baina, etengabeko berritzea behar du?
—Abesbatza 1923an sortu zen, eta ordutik 1966ra parrokiako abesbatza izan zen, parrokiatik kanpo leku gitxitan kantatzen zuena. 1966an Juanjo Gainzak hartu zuen zuzendaritza, -Manuel Gainza sortzailearen semeak-, eta abesbatza kanpoan kantatzen hasi zen, lehiaketetara joaten -eta batzuk irabazten-, atzerrian harremanak gauzatzen... Horrek eragin du apurka-apurka jendea hurbiltzea. Etengabe dabil jendea sartzen;

orain 62 lagun gaude, eta batzuk hiru urte daroez, beste batzuek bi... Zortea daukagu, abesbatz askok arazoak dauzkatelako, gizon abesbatzek batez ere. Gu maite egiten gaituzte herrian, eta beti edukiten dugu jendea. —**Badago mugarik kide kopuruan?**
—Ez dago numerus claususik, baina jende asko dagoenean ahalegintzen gara denboraldi batez gauzak lasaiago egon daitezen, ezin gara 100 izan. Hau boladaka doa. Jende gazteagaz gertatu zaigu: gazte bat dator, eta azkenean haren bospasei lagun ere bai. Ahoz aho

zabaltzen da.
—**Erakargarria da oraindik gazteentzat?**
—Hala uste dut. Jendeak ezetz dio, gazte jendeak ez duela hau gustuko. Hara, ez dut uste hau gazteegientzat denik. 20-22 urtekoak etorri dira, gero utzi egin dutenak eta handik urte batzuetara, egonkortu egin direnean, atzera etorri direnak. Hau ez da 20 urtekoentzako bizimodua. Entsaioak daude, disziplina, betebeharrak, bidaia...
—**Abesbatz batzuetan badaude zailtasunak, eta nik inoiz ikusi ditut iragarkiak jendea eskatzen. “Ez da beharrezkoa oso ondo abes-
tea”, esaten dute... Zuenean ere ez?**

«Hau ez da 20 urtekoentzako bizimodua; disziplina, betebeharrak, entsaioak... »

—Kantatzen jakin behar da. Ezin da eduki belarri bat bestearen aurrean, entzumen apur bat eduki behar da, ahots egokia neurri batean... Gainera, gero eta jende gehiago edukiteak baldintzak estutzeroa behartzen gaitu. Hainbeste gaudenez, datozenek behintzat kalitatea ekar diezaiotela abesbatzari...
—**Nazioarte mailan, zelakoak dira euskal abesbatzak?**
—Uste dut apur bat atzean geratu direla, tradizioari iltzatuta. Guk arrakasta handia eduki dugu mundu osoan. Baina abesteko moduagatik, batez ere: 50 gizoneko abesbatza, indarra daukan euskal folklorea abesten. Europako ezagunenetakoa den Tolosako jaialdian, berriz, abesbatza gehienak atzerriarrak dira. Euskal abesbatzek ez daukate, beharbada, besteek adinako musikarenganako sena, indarrean dagoen musika motarenganako batez ere lehiaketetan abangoardiako musika da nagusi. Eta guk ez dugu halakorik abesten. Dena den, nonork abestu behar du Boga Boga ere. m

Esakere > “Burure ekarri ezinik dabil”

Irudia: Gorka Vazquez

Telebisinoko txapelketatan aurkezlek zeozer galdetuten daunen gu behingon akordako gara erantzuneaz, eta barre eta guzti egingo dotsegu TBko salora yon direzen gixajori, erantzune burura ekarri ezinik dabiltezelako, baia ai ene! Guardasola etxen itxiten badogu, orduntxe yausiko da txaparrade, gallette beti yausiko da gurine dekon alden ganen, eta gure buru noz ibiliko da geldo? Ba bizkor ibiliteko beharrixen handiena dekunen!

Esakera hau I. Gilisastik baturiko da, eta beran “Berba Lapikokoa” liburun topako dozue.

Gureberbakere56

BERBA JATOR BATZUK (XII)

Berbakere 48n eta 52n lez, hemen gure izenondo edo adjektibo batzuk ikusten segiduko dogu, gure eskualdeko euskeran gauzak eta pertsonak ZELAU(K) -Zelako(ak)- direzen esateko erabilten direzenak.

Testua: **Xabi Bilbao**

- **saskel:** pertsona lohie. Sarri úmeri esateko *saskeldo* (mutil) eta *saskeldóna* (neska) erabilten direz.
—*Ezatez saskela ixen! Atarázuz atzámarrak agoátik!*
—*Yáizu (yan egizu) tenedoráz ta, éskuhez yánari ukutu barik, saskeldo!*
Saskilleri berbe (izen edo sustantibo) bere erabilten da, lohiek direzen gauzak edo ekintzek, edo baliorik ez daukenak geitzeko.
—*Zélan tópako dauz giltzek ba?*
Saskillérikez beterik deko sakela ta!
—*Hainbeste urte behar egiten eta gero jubilaziñorako zer emoten doskue?*
Saskilleri *bet!*
- **triperu/e:** yateko zaletasun handi dekona. Kontrako esateko *miskiñule* erabilten da.
—*Armosí emon dotsezule? Nire etxen bere armósa dau ta...! Triperu ederra da*

Antóntxu gure!
—*Txokolate zuriez ez bada ez daule bokátetxu yan gúre! Bada miskiñu hau ume ba!*

• **txiker:** handi ez dana, txiki. Aditz forma bere hartzen dau: *txikertu*, gehienatan “zatitu” esateko.
—*Arratiko zekorra txikerra baia gogorra.*
—*Oiñ ogi bere txikertu barik májo yáten dau señek.*

• **txótxolo/e:** inúsente, malizirik ez dekona.
—*Irribarretxuez eskátuten dotsue eta zuk dana emon? Ezatez txótxolo ixen!*
Txótxolok egiten dauzen gauzak *txotxolokérik* direz, eta norbera txótxolo párate, *txótxolotu*. Hau sarri erabilten da “maite-mindu” esateko.
—*Txótxolotute dauz bata bésteaz, ez dire apártaten minútu bat bérez.*

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

A Arasa

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Errotalde

ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / villabotas-ekoa



itsaso arana / jolastoki-koa

Gari-esparragoak

Seguro asko orain arte egin dugun errezetarik errazena duzue honako hau. Gainera, orain da gari-esparragoen edo *trigero* izenarekin ezagunagoak diren esparragoen sasoia. Hasteko ondo garbitu uretan gari-esparragoak eta gero zapi batekin sikatu. Zartaginean, edo baldin badaukazu plantxan, su ahulean eta olio apur batekin egiten ipini. Gatz asko bota. Biguntzen direnean sua igo urrezta daitezen. Bestetik, ipini sutan egiten eta oliba oliotan berakatzeta eta pernil zatitxo bat, dena ondo txikitua. Eginda dagoenean gari-esparragoen gainetik bota hau guztia. On egin. ^m

osagaiak (bi lagunentzat)

dozena eta erdi gari-esparrago • berakatzeta • pernila • gatzeta • oliba olia



Prezio

Idia hori oso zabalduta badago ere, ardao onek ez dute beti zertan garesti izan behar. Oso prezio egokian ardao bikainak aurki daitezke bilatzen jakinez gero. Ondoko hauek horren adibide batzuk baino ez dira. ^m

1,50 euro baino gitxiago

- D'orduño, 2001 (Errioxa, gaztea)

1,50 eta 2,50 euro artean

- Aradón, 2002 (Errioxa, gaztea)
- Gómez de Segura, 2002 (Errioxa, gaztea)
- Lavaye, 2002 (Errioxa, gaztea)
- Muro, 2002 (Errioxa, gaztea)

4,50 eta 10 euro artean

- Azpilicueta, 2000 (Errioxa, krianza)
- Muga, 2002 (Errioxa, zuria)
- Barzagoso, 97 (Errioxa, erreserba)
- Ramón Bilbao, 2001 (Errioxa, krianza)
- Viña Izadi, 2000 (Errioxa, krianza)

Amatxo maitea

Iberikoak dastatzeko taberna berria Algortan



Argazkian, Gaizka Gil bere alabagaz

Martxoaren 8an zabaldu zuten Amatxo Maitea izeneko taberna berria Algortan. Gaizka Gil leioaztarra dugu ugazaba, Mari Tere emazteagaz eta Fernando koinatuagaz batera, eta guztira sei lagun dabilta behar-rean 200 metro koadroko lokal honetan (urte askoan Itsaso jatetxea eta geroago Sapito puba egon ziren leku berean). *“Tabernari Amatxo Maitea ipini diogu izena polita delako”*, diosku Gaizkak. *“Euskaldunak izanda, hemen euskarari garrantzia ematen diogu”*; izan ere, karta gaztelaniaz zein euskaraz irakur dezakegu.

Etzeko berezitasuna iberikoak dira, eta barran edo jantokian dastatzeaz gain, tabernan bertan paratu duten dendatxoan ere eros daitezke: *“Urdaiazpiko iberikoak, solo-moa, txorizoa eta guk geuk prestatutako*

janaria saltzen ditugu: kroketak -hobekien ateratzen zaiguna-, hostopilak, tartak...”. Labur esanda, oso eskaintza zabala daukate tabernan: gosariak (1,80 eurotik gora), ogi-tartekoak (2,30 eurotik 4 eurora), arku-mezko pintxo morunoak (3 euro), kazola-txoak (4 eurotik 8ra), nahaskiak (5 euro), piper beteak (1,5 euro), kroketak (8 euro), iberikoak (guztiak pan tumaca-gaz, 6 eurotik 12ra) eta entsaladak (4,10 eurotik 10era). Badago beraz zer aukeratu Amatxo Maitea-n. Goizeko 7:15etan ireki eta gaueko 23:00etan zarratzen dute egunero; bari-kuetan eta zapatuetan, ordea, gauerdiko 0:30ean ixten da. ^m

Amatxo maitea
Amezti, 4 - Algorta
T. 94 676 06 15

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde
taberna
eguneko menua

Kresaltxu 13
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

Lacofris, s.l. SERVITEC

• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA
• 3 HILABETEKO GARANTIA

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf.: 944 306 493

VIEJO
kopak eta giro jatorra
Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

gOZOLABEA
galdaretxe
• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

amesti
obrak • proiektuak
Berrikuntzak
Eraikuntzak
Etxebizitzak
Lokalak
Bulegoak
Basagoliti etorb. 56
48.991 Algorta
Tel. 944 915 298
Fax 944 915 299
amesti@ameslur.com

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria
• Odontologia oroko-
ma
• Ortodontzia
• Periodontzia
Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 94 430 76 96

san inazio
autoeskola
1951n sortua
LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak
Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREEETA T. : 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T. : 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta askotarikoak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA
t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Zein da irakurri duzun azken liburua? Orain dela lau urte irakurritako hura? Komeni zaizu bada libururen bat eskuartearen hartzea, eta bertan barnera-tuz bestelako istorio eta abenturak bizitzeko aukera edukiko duzu.

OTSOA
t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Triste antzean zabilta azken aldian, bolada txarra pasatzen zabiltzala diozu, eta erlojuaren orratzek aurrera egiteko indarrik ez daukatela uste duzu. Baina, biharko eguna gaur bihurtuko da laster batean, ikusiko duzu.

ADARRA
t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Eztl horrek ez dauka ixura onik, azke-nengo katarroa ez duzu ondo osatu. Sama lepoko berogarriagaz estali goizean, eta esne beroa eztiagaz hartu gauean. Arratsalderoko edari hotz horiek ez dizu-te batere onik egingo.

AITZURRA
t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Oraindino bikotekiderik ez daukazula? Loraz lora ibiltzea gogoko duzu, baina lorontzi bakar batean lora bakarra landatu beharko zenuke. Eta lehenengo eta behin lora horri ongari ona eskaini beharko diozu.

HOSTOA
t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Batzuetan oso zeurekoia zara. Batzeko erein beharra dago, eta zure ortua begi-ratuta ezin uzta oparoa iragarri. Eskuzabalagoa izan zaitez. Bestalde, zure umore fin horrek edonor barrez leherrarazten du, segi horrela!

EGUZKIA
t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Iragana joan zen, oraina etorkizunari itxoiten ematen duzu, eta biharkoa ez da gaur helduko. Momentuan momentukoa bizi ezazu. Datorrena, berak gura legez helduko da, ez zuk irudikatu moduan. *Carpe diem* ziotenen modura egizu!

GARIA
t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Mundua dantzan ipintzeko gaitasuna daukazu, zuk holan gura duzunean. Dena dela, azken aldian ez zenuke ezta Igor Yebra ere dantzan jarriko. Egizu parrandarako plana eta primeran pasako duzu! Gora bihotzak!

LASTOA
t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Albotik pasa eta lagunak agurtu ere ez. Hainbat alditan egin duzu laprast eta ia jausi zara. Urrutiko kartelak irakurtzeko begiak txiki-txiki ixten dituzu... Optikatik pasa beharko zenuke! Zure begiak zeezer ikusi guran dabilta.

IRATZEA
t



(Abuztuak 18 irailak 16)
Ez erabiltzeagatik parasmametxa egin zaizu behe alde horretan. Sexua goxatze-ko da! Ahaztu al zaizu? Inork ez duela zurekin gozatu gura? Ahalegintzean dago gakoa, eta gainera, hemendik aurrera iza-rrak ere zeugaz daude.

META
t



(Irailak 17 urriak 16)
Aitormen garrantzitsua egingo dizu lagun batek, eta sekretua gorde beharko diozu. Baina kostata beteko duzu zure berba. Kontuz ibili! Oraingoa laguna saltzen baduzu, lan asko egin beharko duzu haren konfiantza berritri berreskuratzeko.

HAZIA
t



(Urriak 17 azaroak 15)
"Derrigorrezko gauza bi: hil eta hil artean bizi". Garai onak eta txarrak bizi behar ditugu eta zu orain bolada txarra pasatzen zabilta. Patxadaz hartu eta eutsi goiar! Etorkizuna eguzkitsu ageri da-eta.

NEGUA
t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Esperantza Geroan bizi ei da. Eta zuk gogor eutsi beharko duzu, ez duzu ixaropena bidean galdu behar. Maitasun kontuen inguruan daukazun buruhauste den-denak laster argituko dira, eta gauzak ezin hobeto joango dira.




mungia
oKINDegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.


Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik



Ezker eskuin

1. Industriak eraldatzen dituen gaiak. 2. Jausiak. Letra grekoa. 3. Hartuemanak. 4. Euskal Herri hegoaldeko ibaia. Estimatu handiko zur. 5. Nagoela. Zah., zakur. 6. Nork pluralaren araberrako atzizkia. ... Robles, Lapurdiko txiste-kontalaria. Bat. 7. Enea. Bizkaieraz, pikeak. 8. Gauza. Saudi Arabiako hiriburua. Lehen bokala. 9. Zero. Gipuzkeraz, gara. Ardi, hitz elkarketan. 10. Arratseko otordu. Landu, apaindu.

Goitik behera

1. Lehenbizikoa. 2. Ebazpean, deliberoa. Euskal alfabetoko letra madarikatua. 3. Horkoari. Letoniako hiriburua. 4. Iparraldean, esaiozue. Erbioaren sinbolo kimikoa. 5. Ba..., haiei banu. Edateko gogo. 6. Animalia konkordun. Kasik. 7. Kalitua, hila. Oxigenoa. 8. Iodoa. Nafarroako ibilgailuetan. Niri, zuen. 9. Nafarroako herria. Bokala. Radona. Kokoriko jarri.

Soluzioak

U	D	N	O		I	H	A	R	I	A	F	A	R	I	A
T	V	A	R	A	V	H	E	G	E	O					
A	D				R	I	A	R	I	A	G	A	I	A	
I	A	K			U	I	A	R	E	N					
			Z	T	U	G	U		K	E					
R	O			V	L	E	Z	A	I	N					
O	N	A	B	E		O	B	R	E						
K	A	N	A	M	E	R	E	A	R	H					
O	R		K	A	R	O	R	E							
K	A	I	A		G	N	E	H	E	L					

asmatu eta irabazi > Argia aldizkariaren opariak



Nor da?

- Unibertsitateko irakasle izan zen garai batean
- Ea aberats izatea gura dugun galdetzen zigun telebistatik
- Gutxi bezala altxatzen du bekaina

> Aurrekoaren erantzuna: Ricardo Blazquez

> Irabazlea: **Bego Martinez ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren biru hilabeteko barpidetza doan



Kike Amonarrizen 888 TXISTE liburua

www.argia.com



MANUEL SANCHEZEK UTZITAKO ARGAZKIA

Getxo Futbol Taldeko jubenilak, 1951

Aurkezpenik ez du behar futbol talde gogoangarri honek, bai ordea Manuel Sanchezek helarazi digun goiko argazki ederrak. Izenburuan agertzen den moduan, 1951n dago eginda irudia. Urte hartan Jubenilen Bizkaiko Leheengo Kopa jokatu zen. Txapelketan Getxoko gazteak finalera ailegatu ziren, baita hura irabazi ere. Indautxuren aurka jokatu zuten finala getxoztarrek Garellanoko futbol zelaian eta bi eta hutzeko emaitzarekin gailendu zitzaizkien bilbotarrei. m

Zutunik: Letamendia, Bilbao, Herrero, Ferrer, Arteta (entrenatzailea), Landa, Basterretxea, Otxoa (masajista).
Makurtuta: Garcia, Sanchez, Ormaza, Bilbao, Aranguren, Ajuria.



gure posta elektroniko berria

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

DANI ARANZUBIA > Athleticeko atezaina

“Fededuna naiz eta Jesukristo miresten dut”

Testua: **Jon Urresti** / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini ezazu zeure burua.

Nik uste dut lasaitasuna helarazten dudala. Jendeak behintzat hori esaten dit, ez dudala urduri jokatzeko. Baina onartu beharra daukat oso pazientzia gutxikoa ere banaizela.

Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea? Adibidez, nire biografia.

Eta zein pertsonaia antzeztuko zenuke film batean? *Terminator*.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Jesu Kristo, bere handitasunagatik, beste barik. Fededuna naiz.

Zure jakirik gogokoena. Arroza edozein modutan.

Aitor dezakezun bizio bat.

Ez daukat biziorik, ez handiak ez txikerrak. Etxetik kanpo, jatetxetan jatea izan daiteke. Atsegin dut janari ona, mokofinekoa naiz.

Oporretara joateko lekurik aproposena.

Errioxako herri batekoa naiz, Fuenmayor, eta ia urte osoa hemen ematen dudanez, egun bat libre daukadanean, hara joatea gustatzen zait. Gainera, familia eta lagunak hantxe ditut.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen. Traizioa.

Zer janzten duzu lo egiteko?

Mahuka motzeko kotoizko kamiseta. Eta ez, ez da zuri-gorria (barreak).

Ezin zaitezke bizi... Familia eta futbola barik.

Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiarena.

Orain dela gutxi, buruan masajeak emateko harri batzuk erosi nizkion Ekuadorreko bati azoka batean. Buruko minantzako ei dira.

Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?

Athletic Errege Kopako txapelduna dela, eta gabarra Ibaizabalera irtetzen dela.

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa?

Denboraldi honetan tituluren bat irabaziko dugula.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?

Ez naiz bere emozioak zabal-zabalik erakusten dituen pertsona.

Zure azken erokeria.

Elurra mara-mara ari zuela sari bat jasotzera Logroñora autoz joatea. m



ezagutzera emon!

LABURREAN — Athletic erlijioa bada Bizkaian, Dani Aranzubia (Logroño, 1979) bere apostoluetako bat dugu, Yeste, Etxeberria eta Guerrerorekin batera; Julenek gutxiago jokatzeko duen arren, oraindik ikur bat ere bada. Talde zuri-gorriaren “goleiroak” (horre-lasaten diete brasildarrek atezainei) 2000ko abenduaren 13an egin zuen debuta Athleticen, 20 urte beherakoentzat Munduko Txapelketa eta Sydneyko Joko Olinpikoetan zilarrezko domina Espainiko selekzioagaz eskuratu ostean. Ligako Lehen Mailan 100 partidu betetzeko bidean dago Aranzubia. Betidanik gustatu izan zaio atezain izatea: “*Umemokoa nintzenetik, sei urtegaraz entrenatzen hasi nintzenetik, gogoko nuen atezain ipintzea eta gaur arte*”. Ez du inoiz eredu garbirik izan: “*Futbola eta partiduak ikusten nituenean, atezain guztiengan ipintzen nuen arreta. Atezain asko aztertu ditut, esaterako Zubizarreta*”. Jokalari moduan ez du uste bertute handirik ezta akats handirik ere daukanik, “*erregular samarra naiz alderdi guztietan*”, diosku Dani Aranzubiak. “*Baina ez zait gustatzen nitaz berba egitea, nahiago dut hori besteek egitea*”.

egizu bidaia gorriarekin

hartu parte, 6.000 euroko zozketan ikasketa bidaiarako
(gutxienez 20 ikasle, 18 eta 26 urte bitartekoak)

Epea maiatzaren 31ra arte

Oinarriak eta formularioa, www.bbk.es orrian



BBK 26=